

Herririk Herri |4|

Aurrekontu "orekatuak" aurkeztu ditu Elorrioko Gobernu Taldeak 2009rako



Berbaz |9|

Nerea Osoro: "Intxorta asti taldea sasoi onean heldu da 20. urtemugara"

Ekonomia |10|

Mobilizazioak hasi ditue asteen Alcoa enpresan, 105 kaleratzeren kontra

Zelaietako eskolan aurrematrikulatzeko plazarik ez dago

Abadiño • Zelaietako herri eskolan aurrematrikulatutako 27 ikasleetatik lauk, oraingoz, ez daukie plazarik. Egoera hori Udalaren aurreikuspen faltaren ondorio dela salatu dabe Aritz Basauri, Maite Frades, Igor Arkarazo eta Ramon Zarrabeitia zinegotziek.

3

Goiuria kulturgunea apirilean zabaltzea aurreikusi dabe

Iurreta • Goiuria kulturguneko lanak apirilean amaitzea itxaroten dau Udalak. Zabaldu aurretik erabilera antolatzeke araudia onartu behar dabe Kultura Batzordean. 230 metro koadroko eraikin hori Ibarretxe kultur etxearen "osagarri" izan daiten gura dau Udalak.

6

'Hitzaren itzalak': poesia margoz

KULTURA • Imanol Larrinaga margolari durangarrak eta hiru poetak elkarlanean osatu daben erakusketa da 'Hitzaren itzalak'. Orain Gernikan dagoen erakusketa ibiltariaz aritu jaku margolaria.

13

Denetarik gertatu daiteke xakeko azken jardunaldian

KIROLAK • Hil ala biziko partidak jokatu ditue bihar Sestaon. Abadiño Xake Taldeak puntuak behar ditu mailaz igotzeko, baina deskuidatzen bada jaitsi egin daiteke. Zal-di Baltzari zuzenean eragingo leuskio abadiñarren porrotak.

24

• Durango

Santa Susana erosi eta kultur etxea egitea proposatu dabe

7

• Atxondo

Bidegorriko lanak atzeratuta, eguraldi txarragatik

6

• Zaldibar

Udalaren webgune barriztua

6

Ikur frankistak kentzea erabaki dabe Berrizen

> Ezker abertzaleak aurkeztutako mozinoa aho batez onartu dau udalbatzarrak.

> Frankismoaren ikurrak identifikatzeko herritarren parte-hartzea eskatu dabe.

2



Etxeetako atarietan dagoen sinbolo falangistak dira oraingoz kenduko ditueenak. Judit Fernandez

elaia^{IT}

Information Technology S.L.

Zure sistema informatikoa ez da umeen jolasa.
Kontratatu zerbitzu profesionala:
KONTRATATU elaia

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es • Tel.: 94 640 98 98



HERRIRIK HERRI >

BERRIZ

Frankismoaren sinboloak kentzeko mozinoa onartuta

Herritarrei zein herriko kultur eta kirol talde anitzei dei egiten deusie ildo horretako sinboloak non dagozen Udalari jakinarazteko

Berrizko Udalak, aho batez, herriko sinbologia frankista guztia kentzea onartzen dauen mozinoa onartu eban eguazten arratsaldean egindako udalbatzarrean. Karmen Amezua, Aitor Zumelaga eta Gorka Camarazinegotziek aurkeztu eben mozino hori, eta EAJ zein EA alderdien aldeko botoa jaso eban. PSE-EEko zinegotzia, barriz, ez zen udalbatzarrera joan.

Mozinoak, batetik, sinbologia frankista guztiak lehenbailehen kentzeko premina azaltzen dau. Horrez gainera, kultur, kirol eta izaera politikoa daukien herriko taldeei zein herritarrei sinbolo horreek non dagozen Udalari jakinarazteko gonbita luzatzen deuse, ahalik eta zerrenda zehatzena osatu daien. Amaitzeko, neurriok berriztarrei jakinarazteko konpromisoa hartu dabe.

Oraingoz, etxeen atarietan dagozen plaka ezagunak dira identifikatutako sinboloak

Zerrenda osatu eta tokian tokiko komunitateei jakinaraziko deuse asmoa

Karmen Amezua zinegotziak azpimarratu ebanez, “aspaldian eginda egon beharko litzakeena da”. Javier Azpitarte alkateak ildo berean berba egin eban: “Denbora joan denez, emoten dau sasoi haginidituta dagoela, baina horrelako sinbologiak oraindino bada goz eta kendu egin behar dira”. Puri Perez EAKo zinegotziaren ustez, “sinbolo anakronikoak dira, gogoratu gura ez dogun sasoiari erreferentzia egiten deusienak”.

Etxebizitzetako plakak
Mozinoa frankismoari erreferentzia egiten deusan sinbolo guztiei jago. Oraingoz, herriko hainbat etxebizitzetako atarietan dagozen plakak dira identifikatuta dagoen ildo horretako sinbologia bakarrik; sasoiok Etxebizitza Ministerioak jarritakoak; elkar guratzatzen diren goranzko bost gezik

osatutako ikur falangista daukienak, hain zuzen be.

Lehenengo, Udalak identifikatuta dituen plakekin zein herritarrek jakinarazitakoekin zerrenda osatuko dabe. Horregatik prozesu horretan herritarren parte-hartzea garrantzitsua dela dino: “Izan leiteke, adibidez, ur biltegiren batean plakaren bat egotea edo armarriren baten erreferentzia bat”. Ondoren, etxebizitzetan kasuan, jabetza pribatukoak direnez, tokian tokiko komunitateari jakinaraziko deusie asmoa; haren onespena jasota hasiko dira plakak kentzen. ■ J. Derteano

Izan leiteke ur biltegiren batean ikur frankistaren bat egotea, eta herritarren parte-hartzea eskatu dabe



Berrizko etxebizitzetako atari askotan ikusi daitezke oraindino frankismo sasoiak Etxebizitza Ministerioak jarritako plakak. Iban Gorriti

Apirilean hasiko dira kiroldegian antolatu ditueen ikastaroak

Mantenu gimnasia zein Pilates bezalako ikastaroek hiru hilabeteko iraupena izango dabe

Berrizburu kiroldegian apirilean hasi eta hiruhilabeterako prestatu ditueen ikastaroetarako izena emoteko epea hasita dago, martxoaren 21a arte. Kiroldegian bertan apuntatu leiteke 10:00etatik 20:00etara.

Eskaintza zabalaren artean GAP izeneko nobedadea dago; ipurmasailak, abdominalak eta zangoak lantzen dituen ikastaroa. Ez da esperientziarik behar eta edonork parte hartu leike. Klaseak astelehenetan eta eguaztenetan dira, 9:10etik 10:00etara. Jente

Nobedade bat dago: GAP. Ipurmasailak, abdominalak eta zangoak lantzen dituen gimnasia ikastaroa da

Berrizburu kiroldegian emon daiteke izena ikastaroetarako, 10:00etatik 20:00etara

asko apuntatzen bada zozketa bidez osatuko da klasea.

Horrez gainera, ohi daben legez, ildo guztietako ikastaroak ipini ditue aukeran. Mantenu gimnasia astelehenetik eguenera praktikatu daiteke, goizez zein arratsaldez.

Astelehenetan eta eguaztenetan batuka eta breakdancea oinarri daben ikastaroak antolatu ditue; 12 eta 16 urte bitarteko gazteei begira osatu daben ikastaroa da.

Azken aspaldian hain fama- tu egin den Pilates ikastaroan jarduteko aukera be eskaini dabe, astelehenetik eguenera, beti be, arratsaldez.

GARAI

Plazako inguruko lanak laster amaituko ditue

Foru bidea konpontzea bakarrik falta da

Irailean hasi ziren herriko plaza- gaz lotutako lanen 2. eta 3. faseko lanak, eta datozen asteetan amaituko ditue. Hain zuzen be, herrigunea zeharkatzen dauen foru- bidea konpontzea falta da bakarrik; maiatza arteko epea daukie horretarako.

Denera, 315.704 euroko inbertsinoa dauka egitasmoak, eta horreetatik 171.605 Aldunditik lortu ditu Udalak. Errepidea ez eze, aparkalekuak kendu eta oinez- koentzako lekua irabazteaz en helburua, begiratoki barria egiteagaz

batera. Dagoeneko prest dago begiratoki barria: “25-30 metro inguru ditu, eta zurezko plataforma bat egin dogu bertan”, Gontzal Sarrigoitia alkatearen esanetan. Aparkalekuak be kendu ditue, eta “jentea erabiltzen hasi da gune barri hori”. Mahaiak eta arbolak mantendu egingo ditue. Eremu horretan azkenengo ukituak falta direla esan leiteke; zaborrontziak ipintzea, adibidez.

Errepideko lanei jagokenez, hile baten buruan amaitzea itxaroten dabe. ■ M.O.



MALLABIA

Durangaldeko 54. Txistulari Eguna etzi

Durangaldeko 54. Txistulari Eguna ospatuko dabe domekan Mallabian. Eskualdeko txistularien jaia 1956an Abadiñon lehenengoz egin ebenetik Mallabian ospatzen den laugarren urtea izango da hau.

Durangaldeko txistulariek kalejira egingo dabe 10:00etan herrigunean. Ondoren, 12:00etan, Andra Maria elizan kontzertua eskainiko dabe, Jose Antonio Gisasolak aurkeztuta. Bertan, honakoek parte hartuko dabe: Durangaldeko txistulariek (35, guztira), Jasokunde eta Mendibil abesbatzek, Metal taldeak eta Igone Amesti bakarlari mallabitarrak. Zuzendaria Iratxe Uribelarrea mallabitarra izango da. Amaitzeko, 13:00etan, herriko plazan Erregelak dantzatuko ditue.

Durangaldeko txistulariek herrian kalejiran irtengo dabe, 10:00etatik aurrera

Eguerdiko kontzertuan Jasokunde eta Mendibil abesbatzek parte hartuko dabe, Gisasolak aurkeztuta

Durangaldeko Txistulari Eguna Mallabian ospatzearen kontura, Mendibil abesbatzako abeslari Justo Azagirrek honako bertsoa idatzi dau beren beregi: “(...) *Aurten laugarren aldiz / txistuak gurekin / koroak eurekin / kantu alaiekin / Iratxe danokin / badu bai zer egin / ea batzen gaituen / danok elkarrekin.*”

Mallabiko txistulariak

Andra Marietan eta auzoetako jaietan, “bazkaldu eta gero etxetz etxe, baserri baserri, kalez kale txistua jotzeko ohitura zegoen”, gogoratu dabe Emilio Praderak eta Eloi Zelaietak. Jose Praderak 1920tik txistua jotzen eban. Hurrengo belaunaldia Emilio Praderak (haren semeak), Eloi Zelaietak eta Emilio Txurrukak osatu eben. Ondoren, Alberto Gallastegi “Uxarte”, Felipe Zelaieta, Eibar-ko Anttonio, Belen Riaño, Nerea Azpiazu, Julen Rotxa eta Itziar Pradera gazteek lekukoa hartu eutseen. ■ Maria Gonzalez

Iratxe Uribelarreak elizan zuzendutako eguerdiko kontzertuan Igone Amesti bakarlariak abestuko dau

ABADIÑO

Udalak hezkuntza arloan daukan aurreikuspen faltagaitik kezkatuta

Zelaietako eskolan aurrematrikula egin daben 27 umeetatik lauk ez daukie, oraingoz, plazarik; Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposatu dauen irtenbidea umeak Matienako eskolan hartzea da



Ezker abertzaleko zinegotziak, Errota kultur etxean emon eben prentsaurrekoa eta gero. Itsaso Esteban

Zelaieta herri eskolan aurrematrikulazino garaian bi urteko umeendako gelan izena emon daben haur guztiak hartzeko plazarik ez dagoela-eta, eskola publikoaren egoeragaitik “kezkatuta” agertu dira Udaleko hiru zinegotzi astean.

Matienako Errota kultur etxeko agerraldian Aritz Basaurik, Igor Arkarazok eta Maite Fradesek eskuartearen izen dabe hirurek ez eze Ramon Zarrabeitia zinegotziak besinatzen dauen idatzia.

Orain aste bi udalbatzarrean adierazi eben kezka bera da zabal- dutako idatzi horretan agertzen dabena: datorren ikasturtea Zelaietako eskolan hasteko asmoagaz “aurrematrikula egin daben 27 umeetatik 23 baino ez ditu onartuko Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak”, euren berbetan. Eta arazoaren muinean Gobernu Taldearen aurreikuspen falta dagoela dinoe.

“Gobernuaren noraeza”

Zelaieta auzoko eskola publiko-ko matrikulazinoan gertatu den gainkarga horren arrazoia “Abadiño-ko Gobernu Taldeak hezkuntza arloan erakusten dauen proiektu falta eta noraeza” dela dinoe ezker abertzaleko lau zinegotziek. Horrelako arazo baten aurrean, euren ustez, “ez da nahikoa Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara gutun bat bidaltzea”.

Izatez, Udalaren kompetentzia ez diren beste gai batzuetan egin dauen moduan, Udalak “lidergoa hartu” beharko leukela pentsatzen dabe –Bizkaiko Aldundiaren jabetzakoa den errepidearen kasua ipini dabe horren adibide–, “oso larria den egoeraren konponbiderako demanda eginez”, eta Hezkuntza Sailari konponbidea exijituz. “Horretan”, dinoe, “sinatzaileok, gurasoak eta eskola bera aldamenean izango leuke Gobernu Taldeak”.

Hezkuntza Sailari jagokonean Gobernu Taldearen “prebisino falta” deitu dabenagaz lotu ditue Udaleko beste zenbait gai be, agerraldi berean; Matienako eskolan, lehen futbol-zelaia zena autoendako aparaleku bilakatu

Udalak “lidergoa hartu” beharko leukela dinoe, konponbidea exijituz

Arazoa konpontzeko, Hezkuntza Ordezkaritzara gutun bat bidaltzea ez dela nahikoa uste dabe

Eraikitzen dituen etxebizitzien araberrako zerbitzurik ez egokitzea egozten deusie Gobernu Taldeari

izana edo Matienako eskola zahar- raren eraikinari hezkuntzatik aparteko erabilera emotearen behin-behineko erabakiak aita- tu ditue, besteak beste.

Zerbitzu gabezia

Udalean orain urtebete baino lehenago jaso eben zentroaren zuzendaritzatik Zelaietako esko- laren ratioari jagokon kezka- ren barri, eta orain Gobernu Taldea “prebisino barik eta proiektu barik” dabilela uste dabe. Orain urte eta erdi jaiotako umeak aurre- matrikulazino ratioetan sartzen ez direnak direla esan dabe.

Hiru zinegotzi horreen ber- betan, izan ezin leitekeena da “martxan dagoen etxebizita egi- tasmoko handien aurrean –UR8 ere- muan eraikitzeak, esaterako– ez planteatzea zelan erantzun hezkuntza arloan izango den eskaera barriari, edo osasun arloan etorriko denari”. ■ I.E.

ALBORDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia

ALBORDI
prekozinatua

ELORRIO

Inbertsionei eutsiz, oreka gura dau Gobernu Taldeak aurrekontuetan

Zorpetzea kontrolatu gura dabe, baina herriaren garapenari eragin barik

Krisiaren eragina nabarmena izan arren, Gobernu Taldeak proposatutako aurrekontuetan "inbertsinoak egiteko gure mailari eutsiko deusagu": halan azaldu dau Niko Moreno alkateak. Hori posible izango da "gure diruzaintzaren egoera onarier". Aurtengo aurrekontu osoa 8.781.800 eurokoa da, igazkoa baino apur bat handiagoa. Gobernu Taldearen proposamena eztaba-datzeko eta aurrekontuak onartze-ko udalbatzarra atzo egin eben.

Gobernu Taldeak bost helbururen inguruan osatu ditu aurrekontuak. Batetik, gizarte politikan eragin gura dabe; gastu arruntari eutsi gura deusie, eta zorra sortu beharrean Udalaren baliabide ekonomikoak erabili gura ditue; herria dinamizatu gura dabe eta herriko errealitate instituzionala eta fisikoa modernizatu.

Gastu arruntak kontrolatzeko bidean, aitatu ebenez, 2007tik

Elorrioko auzoak lotuko dituen 15 kilometroko bide sarea osatu gura dabe

hona "gastuak bost puntu jaitsi dira". Horrez gainera, Udalaren zorpetze maila "%6,4tik %5,9ra jaitsi da azken urte bietan".

Inbertsinoak

Atalez atal azaldu eben zeintzuk izango diren aurtengo inbertsino nagusiak. Auzuneei jagokenez, landa lur publikoen inbentarioa egiteaz gainera, auzoak oinezkoen bideagaz lotuko dituen sarea osatzea dabe helburu. Ibilbide horrek, gutxi gora behera 15 kilometroko luzera izango dau.

Hezkuntzaren alorrean, herri eskolan azpiegiturak hobetu gura ditue; ikastetxetik jantokiraino doan bidea estaliz, esaterako.

Horrez gainera, ludoteka Iturritik atara eta lokal propio batean egokitu gura dabe, arrakasta handia izan dauelako. Berdintasunaren atalean, datozen lau urteetarako Udal Berdintasunerako Plana berregingo dabe, besteak beste.

Hirigintzari jagokenez, Berrio-Otxoa kalea oinezkoendako egokitzeko lanak amaitu eta herri eskola eta musika eskola irisgarritasun neurrietara egokituko ditue. Argiñetako hornidura lanak be burutuko dira, Hiru-Etxeitaraino espaloia eginez.

Azkenik, Eleizalden eta errugbi-zelaian azpiegiturak hobetuko ditue. Kirol instalazioen gaineko azterketaren emaitzak aztertu ondoren, skate pista eta rokodromoa be egin gura ditue. ■ J.D.

Musika taldeen lokaletako akustika hobetu gura dabe, eta Arriola intsonorizatu

OTXANDIO

Pujanari elkartasuna helarazoko deusie

Manifestazinoa egingo dabe bihar 19:00etan

Iñaki Pujana Alberdi presoak (Otxandio, 1961) 2009ko otsailaren 23tik kalean egon beharko leukela salatzeako manifestazinoa deitu dau Otxandio Amnistia-ren Aldeko Mugimenduak. Elkartasuna adierazteko manifestazinoa bihar egingo dabe, hilaren 14an, arratsaldeko 19:00etan plaza-rtik irtenda. Ondoren, Pujanaren egoeraren barri emoteko batzar informatiboa egingo dabe. AAMak herritarrei "bidegabekeria hori salatze" bertan parte hartu daien dei egin deutse.

Iñaki Pujanari, ia 23 urte kartzelan emon eta gero, "biziarteko espetxe zigorra" aplikatu gura deusielabarmendu dabe, "Parot doktrinan oinarrituta". Pujanak 2007an zigorraren hiru laurdenak bete zituen, baina ez eben kaleratu. Oraingoan, 2009ko otsailaren 23an zigor osoa bete eta gero, kalean ez dagoela salatu dau AAMak. Horretara, "euskal

presoak eta, kasu honetan, Iñaki Pujana estatu arrazoiaren arabera erabiltzea" leporatu deusie PSOeri.

Iñaki Pujana 1986an Lapurdin atxilotu eben. Frantziako hainbat espetxetan bost urte emon eta gero, polizia indar frantsesek Espainiaratu eben lehenengo presoan izan zen. Ordutik, Espainiako hainbat kartzelatan egon da. Azken urtea Ocaña l en emon dau, Toledon. ■ J.D.

Pujanak espetxean ia 23 urte emon ditu eta bere zigorra 2009ko otsailaren 23an bete eban, baina ez dabe askatu

Pujana Frantziako poliziak Espainiara estraditatu eban lehenengo presoan izan zen

IZURTZA

AHTaren kontrako aldarria zabaltzen

Zapatu osoan zehar egingo ditue ekitaldiak

Herriko gazteek antolatuta, *Izurtzak AHTri stop* lemapean, Tabira inguruan "hasi ditueen obrekiko" eta Abiadura Handiko Trenagazko gaitzespena adierazteko hainbat ekitaldi antolatu ditue. Egunari hasiera emateko, goizean goiz, 10:00etan egin dabe mendi martxarako hitzordua; herriko plaza-rtik irtengo dabe bertaratzen direnek. Presatik, Men-

digainetik eta Bitañotik egingo dabe Abiadura Handiko Trenaren kontrako ibilbidea.

Menditik bueltan, herrira heltzean, enkartelada eta bertso bazkaria izango dira hurrengo hitzorduak. Gorka Lazkano berriztarrek eta Eneko Abasolo "Abarkas" iurretarrak jardungo dabe kantu-kantari. Eta bazkari eta bertsoen ondoren, AHTaren gaineko ikus-entzunezkoen emanaldia izango da.

Gauetz, berriz, punk-rock doinuak lantzen ditueen Durangaldeko hainbat taldeen zuzeneko kontzertuek emongo dabe amaitutzat herriko gazteek antolatutako eguna. ■ I.E.

Lazkano eta Abarkas bertsolariek girotuko dabe Argintxu elkartean izango den bertso bazkaria

Bosgarren urtez Txarriboda afaria egin eben

Urteroko tradizioari eutsiz, Portalekua tabernak antolatuta Txarriboda egin eben joan zen zapatuan, egun osoan zehar. Aurtengoa bosgarren aldia izan dabe. Eguerdian odoloste eta gibel dastaketa egin eben Portalekuan. Ondoren, bertso poteoa egin eben herriko tabernetan.

Herrian zehar giroa alaitu eta gero, iluntzean, Alkartu soziedadean bertso afaria egin eben. Guztira, 76 lagun batu ziren afaritara. Ederto afaldu ondoren, Angel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu bertsolarien saioagaz gozatu eben bertaratu zirenek.

Afaritara joan ez eta txerrikiak probatu barik geratu zenak, izango dau aukerik aurrerago be. Izan be, egun haretan egindako txori-zaok behar den moduan sikatzen direnean Portalekuan salgai ipiniko ditue.



Alkartu soziedadean batu ziren afaritara. Kepa Aginako

• Oinetako patologiak

• Neurritza egindako plantillak

• Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarrien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGOA 100. Emergencia

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprakia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



OREKA LASAI-GUNEA

- YOGA
- YOGA (UMEAK)
- KIROL-MASAJEA
- PILATES
- TAILANDIAR MASAJEA
- MASAJE KURTSOAK

Anduetxeta, 6 - behea
48230 ELORRIO

tf. 94 658 47 96

ESTETIKA



ESTETIKA TRATAMENDUAK

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa, barizek...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
Portaera, depresio, loezin, antsietate,
bikote, eskola-atzerapen, anorexia,
bulimia. Jokabide terapien masterduna.
www.psicologo.biz

Frantzisko Ibarra 6
48200 DURANGO

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

Z IURRETA

Apirilean zabalik gura dabe Goiuria kulturgunea

Ibarretxe kultur etxearen "osagarri" izan daiten gura dau Udalak

Udalarduradunen aurreikuspenak betez gero, apirila amaitu orduko erabiltzeko gertu izango dabe herriko kultur, kirol zein elkarte sozialek Goiuria kulturgunea. Zabaldu aurretik, baina, erabilera eta ordutegiak lotzeko araudia onartu beharko dabe Kultura Batzordean. Horretan hasita dagoz, Iñaki Totorikaguna alkatetxeko esan dauenez.

Denera, 230 metro koadro inguru batzen dituen azpiegitura barria Ibarretxe kultur etxearen "osagarri" izan daiten gura dau Udalak, alkatearen berbetan. Ia 300.000 euro erabili ditue Goiuria ikastola zena zaharbarritu eta altzariz janzteko.

Lanerako eta batzeko lekua
Elkarteendako lanerako eta elkartzeko lekua izango da Udala be erabiltzaile izango dauen azpiegitura barria: "Ibarretxek baino mal-

gutasun handiagoa izango dau ordutegiari jagokonez. Zelanbait, erabiltzaileek eurek kudeatutako espazioa izango da. Beraz, orain kultur etxean egiten diren batzar edo tailer batzuk Goiuriara eroatea izango dogu", argitu dau Totorikaguenak. Elkarte bakotxagaz lotutako txartel-elektronikoekin bideratuko dira sartu-irtenak.

Batzartzeko gela bi, elkartearen erabilerrako sei biltegi txiki,

Kulturgunea zabaldu aurretik erabilera eta ordutegiak lotzeko araudia onartu behar dabe Kultura Batzordean

Denera, 230 metro koadro inguru batzen ditu eta 300.000 euroko inbertsinoa eskatu dau

komun bi eta dutxak, eta, 90 metro koadro inguruko erabilera anitzetarako gune zabala —bitan zatitzeko aukera izango dauena— egokituko ditue. Eraikinaren sarre-
ra biak mantenduko ditu isolatu eta intsonorizatutako guneak. Erregistratutako hamar bat elkar-
tek erabiltzea aurreikusi dabe.

Elkarteak sakabanatuta

Totorikaguenak gogoratu dau elkarteekin batzar bi egin ditueela, eta horren ekarpenak jasoz egitasmoa aurkeztu deuseela: "Azpiegitura al bait arinen gura dogu zabaldu. Izan be, hainbat elkarte Udaleko lokaletan sakabanatuta dago, eta behin-behinekotasan egoera horregaz amaitu gura dogu". Abenduan hasi ziren zaharbarritze lanak, eta Udalak enpresak eskatutako hilabete eta erdiko luzapena onartu ondoren, apirilera izango ei dira amaituta. ■ A.B.

Z ZALDIBAR

Webgune barriztua aurkeztu dau Udalak

Atzotik dago webgune barriztua erabilgarri

Orain zortzi urte inguru ipini eben Zaldibarko Udalaren sareko gunea martxan, eta, erabiltzaileen gaur egungo eskakizunak asetzeko zenbait barrikuntza egiteko beharra ikusita, Innova enpresa gipuzkoarrari egin eutsien enkargua. Eguaztenean, Udaleko batzar aretoan egin daben aurkezpenean, enpresa horretako arduradunak egin dau webgune barriak ematen dituen aukeren erakustaldia.

Erabilterraza eta azkarra

Gunearen diseinuan izan daben helburu nagusia herritarrendako erabilterraza eta azkarra litzatekeen espazioa sortzea izan da, azaldu dabenez. Horretarako, bisitariendako erakargarriak izango direlakoan, hainbat edukigaz hornituko dabe www.zaldibar.org, aurkezpenean azpimarratu dabenez. Menu nagusian *Udala, Gure Herria, Kultura, Albisteak* eta *Galeria* atalak zehaztu ditue.

Atalotan murgilduta, Udalaren kontratazioen baldintza-orriak, herriaren kale izendegia eta herriko jaien zein agendako hitzorduen barri aurkituko dabe webgunearen erabiltzaileek.

Herritarrek Udalean egin beharreko hainbat tramite internet bitartez egiteko aukera be eskaintzen dau webgune barri-
tuak, eta askotariko zerbitzueta-
rako loturak be batu ditue Uda-
leko webgunean; Bizkaibus eta Euskotren, kasurako. ■ I.E.

Innova enpresa gipuzkoarrari egin deusie Udaleko webgunea barrizteko enkargua

Hainbat tramite webgunean egiteko aukera be eskainiko deuse zaldibartarrei

Z ATXONDO



Bidegorriaren aldamenen dagoen umeendako jolasgunea be atondu dabe. Itsaso Esteban

Espero baino luzeago joko dabe lanek

Eguraldi txarrak atzeratu ditu bidegorriko lanak

Joan zen abendurako amaituta behar eben oinezkoen bidean Bizkaiko Foru Aldundiak burutzen diharduen lanak: horixe zen aurreikusi ebena. Baina atzeratu egin da egokitze lanen amaiera.

Oinezkoen bidea egokitzeko lanak hamabost egunen buruan amaitzea itxaroten dabela dinoe udal agintariek

Bidegorriaren egokitze lanen bukaera atzeratzearen arrazoia urte hasikerako eguraldi txarra izan dela azaldu deuskue Udalean —batez be, izan diren euri-jasak—;

lanan garapena horrek oztopatu dauela. Egitekoetako bat oinezkoen bidearen zorua konpontzea eben, eta lan hori atzeratu beharra ekarri dau eguraldiak.

Orain 15 urte inguru eginda-
ko ibilbideko lurzorua barritu eta erabilerrak sortutako zuloak konpontzeaz gainera, mahai eta zakar-
rontzi barriak be ipini ditue. Durangaldeko herritar askok kirola egiteko edo ibiltoki lez erabiltzen dauen lau kilometro inguruko bidegorrian umeendako jolasgune barria be ipini dabe.

Igazko irailean abiatu zituen oinezkoen bideko lanak hamabost egun barrurako bukatzea da orain aurreikusi dabena. ■ I.E.

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar
Goietia, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 681 43 85

Arriike
Liburudenda
Kalebarria, x/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

EGIA AROZTEGIA
EBANISTERIA
ZUZENENKO SALMENTA
Sukaldeak - Ateak - Armairuak neurrira - Oholtzak
Tel. eta Faxa: 681 77 46
Enxea: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54
Tabira kalea, 54
48200 DURANGO

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

UNDARRI BIKE
Bizikleta salmenta eta konponketa.
Bidebarrieta, 5 - bajo
15215 IURRETA
94 481 78 08
www.undarribike.com



DURANGO

Santa Susana kultur etxe izateko aukera

Ateak itxiko dituen komentuan kultur etxe “duina” sortzea proposatu dau ezker abertzaleak

Durangok uriko elkarteek zehaztutako diseinu eta dinamika ildoetan oinarritutako kultur etxea behar dau ezker abertzalearen ustez, eta ateak itxiko dituen Santa Susana komentuak horretarako aukera eskaintzen dauela deritzo. Horren haritik, Udalak eraikina eskuratzea proposatu dabe, eta horren diseinua helburu izango dauen elkarte eta herritarrez osatutako gunea sortzea. “Durangarren nortasuna” adierazi eta “jendartearen bizitasuna bultzatu eta herriaren inplikazioa eta parte-hartzea” lortzeko kultur eskaintza da helburua.

‘Durango eraiki’
Proposamen hori “bazterketa politiko eta ilegalizazioen gainetik” udal kudeaketaren alda eta bultzatu guran lanean jarraitzen dabela berretsiz, ‘Durango Eraiki’ izenburupean eta hainbat arlo jorratuz plazaratu gura dituen proposamenetarikoa da. “Gure proposamenak sistematikoki ez dira kontuan hartzen, baina, erakutsi gura dogu badaukaguzela egitasmoak eta lanean gabilzela, urterik urte egin dogun lez”.
Kultur etxe “parte-hartzaile, demokratiko, duin, zabal eta ani-

tza” eraiki gura dabe, eta orain ei dago aukera, “orain hustuko da-etakomentua”, gogoratu dabenez: “4.900 metro koadro erabilgarri batzen ditu, oinezkoen gunean eta inguruan lorategiak dituen eraikinak daukaz, herrigunean dago eta liburutegitik gertu”. Elkarre eta herritarrez osatutako gunean, bestalde, “beharrizanak aztertu eta espazioak definituko litzateke, herriko beste guneekin koordinazio bideak jarri ez eze, bitartekoak optimizatuz”. Pinondo Etxeak 1.400 metro koadro batzen dituela gogoratu dabe.

Proposamen “zehatza”
Lurra berkalifikatu beharrean ekipamendu mota aldatu leitekeela adierazteko dau ezker abertzaleak, “erlijiosotik kultur ekipamendu izatera pasatzeko proposamen zehatz eta landua da”. Dinonez, “huts egin dauen eredu desarrollista, liberal eta neoliberalen barik, kulturaren inbertitu behar da, beharrizanak betez. Parte-hartzea zabaltzeko unea da”. ■ A.B.

Santa Susana komentuak 4.900 bat metro koadro erabilgarri batzen ditu

Kultur etxea diseinatzeko uriko elkarte eta herritarrek osatutako gunea sortzea proposatu dabe



Berdintasunerako Kontseiluak, hainbat arlo ordezkatzuz, emakume taldea omendu dau. K. Aginako

Emakumeek hainbat arlotan egindako lanaren ordezkari

Topagune izan gura dauen Andragunea jentaurrean aurkeztu dabe

Emakumeen topagune izan gura dauen Andragunea jentaurrean aurkeztu eben martxoaren 8ko atarian. Hitzordua aprobetxatuta, hainbat arlotan emakumeek egindako lanaren aitortza jaso eban ordezkariak zabal batek.

Kirol, euskara, kultura zein baserri munduko emakumeek omenaldia jaso eben Aukera Berdintasunerako Kontseiluaren eskutik. Emakume askok berdintasunera bidean emondako pausoak aitortu gura izan ditue. ■ A.B.

Emakume askok eta askok berdintasunera bidean emondako pausoak aitortu gura izan ditue



Harrera ona izan eban igaz ‘Durango Ardo Saltsan’ topaketa enogastronomikoak. Judit Fernandez

150 ardaotik gora dastatzeko aukera Landako Gunean

‘Durango Ardo Saltsan’ hilaren 28an izango da

‘Durango Ardo Saltsan’ II. Azoka Enogastronomikoak 56 upeltegi batuko ditu, martxoaren 28an, Landako Gunean; 150 ardaotik gora dastatzeko aukera eskainiko dau bigarren edizioa dauen honetan. Igaz baino 16 gehiago izango dira; zortzi nazinoarte mailakoak. Ardaoaz gainera, olio, urdaiazpiko iberikoa, izokin ketua, ahatea eta horren eratorriak, munduko

Denera, 56 ardao upeltegi batuko dira, igaz baino 16 gehiago; zortzi nazinoarte mailakoak izango dira

urak —Italia, Ingalaterra...— eta slowfoodaren baitan batutakoak eskainiko ditu azokak, 11:00etatik 21:00etara bitartean.
Slowfood deritzon horixe da barrikuntza, Getariko zerbak, Karrantzako gaztaia eta Mungia-

ko arrain urdin ketuak eskainiz. Delicatessen eta slowfood produktuen 14 ekoizle batuko dira.
Ardao zein aurkeztutako produktuen dastaketa batuz, 12 euro ordaindu beharko da sarrera. Dastaketa kit bat be emongo dabe, dastaketarako kopa, upeltegien informazio-liburuxka eta erakutsitako produktuak eskuratzeko eskabide orria jasotzen dituen.
Delicatessen jakioi eta Euskal Herria zein nazinoarte mailako upeltegi garrantzitsuenetako ardaoak —Alemania, Frantzia, Italia, Argentina...— gerturatzea dau helburu azokak. Ardao, kafe zein olio dastaketan barneratzeko aukera be eskainiko dau. ■ A.B.

Slowfood deritzen jakiei gune berezia eskainiko deutsee bigarren edizioa honetan

DURANGALDEA

Berdintasunerako bidean, gogora ekartzeko eguna

Hainbat ekitaldi izan dira Durangaldean martxoaren 8a dela-eta



Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko oraindino egiteko asko dagoela zabaldu dabe, Durangaldean be, martxoaren 8an. Emakumearen Nazinoarteko Egunagaz bat eginik, hainbat izan dira antolatutako ekitaldiak, gizon zein emakumeak parte hartzera gonbidatuz. Lilakrosak deneriko adineko emakumeak batu zituen Durangon; baita gizontzakoak be. Arratsadean, barriz, *Emakumeok gure eskubideak direlako martxan* lelopean manifestazioa be egin eben Durangoko Plataforma Feministak deituta.

Emakumea ardatz hartutako antzezlanek hartu ditue eskualdeko aretoak; baita dantza ikuskizunak be, Abadiñoko AnbotoAzpikoDamakelkartearen eskutik. Afari zein bazkari giroan elkartzeko deia izan dabe Iurreta eta Zaldibarren, esaterako, eta Otxandion, barriz, Gazte Asanbladak deituta giza-katea be egin eben. Berriren emakume bertsolarien saioa izan



Lilakrosa eta hainbat kultur ikuskizun antolatu dira.

Berdintasuna lortzeko bidea egiteko dagoela gogoratu dabe martxoaren 8an

dabe, bestelakoen artean. Elorriion, mundu osoko andrak erakusten dituen erakusketa dago zabalik. Berdintasunerako pausoak emon arren, oraindino bidea dagoela gogoratu dabe. ■ A.B.

MAÑARIA

Herritik kanpora ikastera doazenendako laguntza

Datozen egunetan iragarriko ditue baldintzak

Joan zen barikuko udalbatzarrean egin eben Garraioko Diru-laguntzaren Ordenantzaren aurreko onarpena, eta datozen egunetan diru-laguntzaren inguruko informazioa publikatuko dabe Udalteko iragarki taulan.

Mañariatik kanpora ikasten daben 16 eta 25 urte bitarteko gazteak dira diru-laguntzaren onuradun potentzialak: batxillergoan, unibertsitatean edo lanbide heziketa ikasten ari direnak, eta herrian erroldatuta dagozenak.

Interesdunek zein epetan aurkeztu beharko ditueen diru-laguntzak jaso ahal izateko eskakizunak jakinarazi ondoren, hiru hilabete epea izango da eskariak aztertzeko. Guztira, 3.000 euro bideratuko ditu Udalak diru-laguntza honen finantzaketara. ■ I.E.

3.000 euroko diru-atala bideratuko dau Udalak ikasle gazteei zuzenduriko laguntza honetarako

DURANGALDEA

Korrika16 laguntzeko deia

Korrika 16k diru bilketa egingo dau egunotan Hego Euskal Herriko herri guztietan. Korrikaren izenean, herritarren elkartasuna jasoko dabe martxoaren 15era bitartean. AEK-ko kide guztiek identifikazioa eroango ei dabe, "txarto ulerturik egon ez daite". Korrikaren helburuetako bat AEK-k Euskal Herrian egiten dauen lana sustatzeko beharrezko baliabide ekonomikoak lortzea dela gogoratu dabe. 'Korrika Lagun' kanpaina be hasiko dau Korrikak 16k, eta Ziberkorrikak Euskal Herrikan kanpo bizi diren euskaltzaleei emongo deutse ondoetorria; Ziberlekukoa mundu osoan barreiatzeko aukera eskainiko dabe.

AHTaren kontrako hitzordua hileko lehenengo egunetan



Durangaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, hileko lehenengo egunetan elkarretaratzeak egingo ditue eskualdean. Durangon, Batzokiaren aurrean egingo dabe hitzordua, 19:30ean; Elorriion, 18:30ean Txintxirri ikastolaren aurrean; Zornotza eta Euban be egingo ditue elkarretaratzeak, 19:00etan. Hil honetantxe hasi ditue Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako protesta ekitaldiok. Goiko argazkian, Elorriion deitutako elkarretaratzearen irudi bat ikusi leiteke.

OTXANDIO

Sagardaoa dastatzeko irteera

Urteroko sagardotegirako irteera egin eben joan zen asteburuan Otxandioko Gazte Asanbladakoek. Urnietako (Gipuzkoa)



sagardotegi baten zeukien bazkaltzeko eta txotxegiteko lekua hartuta. Gazte Asanbladak egindako deiari erantzunez, 30 lagun inguru bertaratu ziren. Soinu txikia eta panderoa joz berotu eben giroa; dantzarako tartea be hartu ei eben.

IURRETA

Mozorro argazki "politena" saritu ditu Mikel Deunak

Rafa Zugaza-Artaza eta Iñaki Irabazalen argazki bana saritu ditu Mikel Deuna kultur elkarteak. Ibarretxe kultur etxeko moztorro argazki erakusketa "politena" izan dira horrek, erakusketa ikustera bertaratu direnek emondako botoek erabaki dabenez. Erakusketa "oso arrakastatsua" izan da.



BERBAZ >



Nerea Osoro •

■ 21 urte

■ Aleman Filologia ikaslea

Nerea Osororekin batera, Nerea Lersundik, Olatz Izagirrek eta Iratxe Aristegik be badihardue begirale Intxortan.

“Borondatezko lana egin arren, ez jaku erreleborik falta”

Intxorta asti elkarteak 20 urte bete dituela gogora ekartzeko egitarau oparoa antolatu dabe Elorrion

“Egitarau zabala antolatzen dogu adin bakotxeko ume zein gazteei begira”

“Asteburuetan umeek ez dabe aisialdi eskaintzarik izaten ”

Gaztetxotan Intxorta asti taldeagaz bat egin eban Nerea Osorok, eta orain begirale jarraitzen dau. Ondorengoek be lekukoa hartzea da asmoa, horixe da eta taldearen filosofia.

Zer helburu daukaz taldeak?

Umeekin euskal giroan hainbat ekintza antolatzea, batez be. Elkarbizitza eta elkarrenganako errespetua lantzea be bada beste helburuetako bat. Asteaz zehar umei zuzendutako aisialdian eskaintza zabala dago, baina asteburuan ez hainbeste, eta hutsune hori bete gura dogu.

6tik 16 urtera bitarteko egitaraua prestatzea ez da erraza izango. Adin tarte zabala da. Txikiekin edo nagusiekin ez doguz ekintza berberak prestatzen. Nagusiekin irteerak prestatzen doguz, abentura-kirolak...Txikiekin jolasak, eskulanak eta halakoak.

Noiz elkartzen zarie?

Zapatuetan. 16:00etatik 18:00etara txikienak, eta hortik 20:00etara nagusienak.

Ume moduan edo begirale, gauzak bestela ikusiko dozuz.

Bai, gurea borondatezko lana da. Ez dogu ezer kobratzen. Edozer antolatzeak lan handia emoten dau. Daukazu ordaina umeak ondo pasatzen ikustea da, eta zure helburua bete dozula ikustea.

Neguko eta udako kanpamenduak be antolatzen dozuez.

Udako kanpamendua antolatzen dogun ekintza guztiekin alderatuta bereziena dela esan geinke. Kanpamendua muntatzen dogu, gehienetan, Nafarroan. Landa batean sukaldea, barrakoiak, komunak, jateko lekua eta abar jartzen doguz. Nagusiekin kanpamendu ibiltaria prestatzen dogu. Euskal Herriko kostan zehar, Iparraldean eta beste hainbat lekutan ibili gara.

Parte-hartzea handia izaten da?

14 begirale gagoz, eta nagusien taldea begirale dabil. Ume kopuruari jagokonez, 80tik 100era.

Errelebo faltarik somatu dozue?

Arlo horretan zortea izan dogu; atzetik datorren taldeak gogotsu dihardu lanean. Nagusien talde horretan, 17 urteko hogeitau inguru daukaguz. Antolatutako jardunaldietan parte hartzeaz gainera, txikiekin laguntzen deuskue.

Zer zailtasun izan dozue?

Denpora falta. Borondatezko lana denez, ikasten edo lanean dabilenak denpora atera behar izaten dau honetarako. Inplikazio handia eskatzen daue, batzuetan beste zeozer itzi behar izaten dogu.

Zer emon deustu Intxortak?

Jente asko ezagutzeko aukera emon deust. Umetan oso dibertigarria da; ondo pasatzen dogu. Begirale lanetan,

zure beharra gustuko daukiela ikustea eta borondatezko lana mantentzen jarraitzea.

Ospakizunekin zer moduz?

Ilusinoz beteta dihardugu. Mendira irteera eta antzerkia egin doguz. Oraindino, beste hainbat ekitaldi falta dira.

■ Jone Guenetxea

20. urtemugako egitaraua

• **Martxoak 15:** 15:30ean Pirritx eta Porrotx, Arriolan.

• **Martxoak 21:** (Galo eta erromatar jantzita joan behar da) Goizean koltxonetak eta tailerrak plazan. Bazkaria kiroldegian, argazkia eta erromeria Luhartz taldeagaz.

• **Martxoak 29:** Kanpamendua prestatzea eta erakusketa 11:00etatik aurrera.

EKONOMIA[>]

> DURANGO



Corus taldeak Layden aurreikusi dituen 55 langileren kaleratzearen aurrean hasi ditue mobilizazioak beharginek. Kepa Aginako

Kaleratze bat be onartu ez eta lanuzteak hasi ditue Layden

Enpresa Komiteak deituta, manifestazinoa egin eben joan zen martxoaren 7an

Abadiño eta Durangon enpresak dituen lantokietan mobilizazioei eutsiko deusez Laydeko beharginek. Corus taldeak aurreikusitako 55 kaleratze-tariko bat be onartu ez eta ordu biko lanuzteak hasi ditue; "Laydek bizirik jarraitzen dauelako eta kaleratze bat be ez dogulako onartuko", mobilizazioei eutsiko deu-

nerik "onena" bizi. Corusek 55 kaleratze planteatu ditu, martxan den enplegu-erregulazinoa negoziatzean aurretik "kaleratze traumatikorik" ez egitea adostu arren.

Langileak desmobilizatzeko kaleratuak litzatekezenen izenak "filtratzea" be salatu dabe. "Kaleratzeak zurrumurru" zirenean hasi zen komitea gaia lantzen, eta otsai-

lean bestelako irtenbideak eskatu eutsiezen zuzendaritzari, egin-dako elkarretaratzean. "Burua ezkutatu eta egun horretantxe dimisinoa aurkeztu eben". Gero, ezezela horrela azaldu eben. Durangon 182 lagunek dihardue. ■ A.B.

Corus taldeak Layde enpresan 55 langile kaleratzea aurreikusi dau

tsee enpresa komitearen berbetan. Manifestazinoa be egin dabe *Despidorik ez. Layde bizirik* lelopean. Corusen Holandako zuzendari-tzagaz be izan da Komitea.

Durangaldean "erreferentea" izan da laminazinoa, baina ez dau

> ZORNOTZA

Mobilizazioak hasi ditue asteen Alcoan

Enpresak 105 behargin kaleratzea aurreikusi dau

Alcoak Zornotzan daukan lantokian aurreikusi ditueen 105 kaleratzeak direla-eta, protesta ekin-tzak hasi ditue beharginek. Martxoan amaitu arte egunero irten-go dabe kalera, iragarri dabenez.

Lanpostu zuzenak dira 58, eta 60 urtetik gorakoentzat 2009 eta 2010 urteetan saritutako bajak iragarri zituen enpresak. Kontra-ten beharginak dira gainerako 45ak; horreetatik 27 kaleratu

ditu enpresak, eta martxoaren 31n eten gura ditu gainerako 20en kontratuak. Behin-behinean dihardueen 82 langileri ordezkapen kontratua egitea eskatu dau enpresa komiteak, "etorkizunari begira enplegu bolumena bermatzeko", CCOO dinonez. ■ A.B.

Behin-behineko 82 laguni ordezkapen kontratua egitea eskatu dabe

kolaborazinoa



Augusto Uriarte Behargintza

Bakoitzak bere ipurdia

Nire lagun batek aitzakiak ipurdiak bezalakoak direla dio: bakoitzak du berea. Krisiari buruz berba egiterakoan ere beste horrenbeste: zenbat popa hainbat kasuistika.

Caixako zuzendari nagusia den Nin-ek dioenez, "etengabeko parrandan bizi izan gara, arriskua gutxietsi eta epe laburreko kudeaketa egin den festa batean". Ez zaio arrazoirik falta, baina nire ustez denok ez gara festa horretan egon. Ni, beste guztiok bezala, gonbidatu ninduten tarteka, baina Forrest Gump bezala korrika alde egin nuen.

Caparros entrenatzaileak Koikili hankak lurrean dituen tipoa dela dio. Ez zaiola burua txoriz bete eta pertsona tinkoa eta osoa dela. Nolakoan den adierazteko Athleticen irabazten duen dirua irabazita ere Lezamara iritsi zen autoarekin jarraitzen duela dio. Zera gehituko nioke nik: ez duela alboratu bere enpresa-proiektua, bizibidea ematen ziona eta emango diola itxaroten duena.

Krisiaren jatorria ezin liteke unibertsalizatu; bakoitzak egin behar du bere buruaren azterketa

Beste lagun batek esaten dit hemen denok jan dugula lapikotik, eta orain denok estutu behar dugula gerrikoa berak eta beste askok diru-laguntza jasotzeko. Dirudienez, hau sarri joan ohi zen Nin jaunak aipaturiko festetara.

Beste lagun batek, alderantziz, berak ez duela lapikotik mokadurik probatu erantzun ohi dio aurrekoari. Inorentzat lan egiten duela eta bere bizimodua eta gastuak bere sarriaren arabera moldatu dituela; ez diezaioela berari krisiaren errurik egotzi. Nik sinestu egiten diot, badakidalako nola bizi den, eta erruga-bea dela deritzot.

Nik, beste lagun batekin korrika egiteaz gain, krisiaren jatorria ezin litekeela unibertsalizatu uste dut, bakoitzak bere azterketa pertsonala egin behar duela; horren arabera eskatu eta kritikatu dezala. Nik, oraingoan, Koikili Athleticen sartu zeneko autoarekin jarraitzen dut; eta jarraituko dut, kopa irabazi arren.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

EXCAVACIONES JON

NOTA GUZTIRI TARGO INDUSTRIAL HONDAKINUEGIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PAQUETARIO, 100% CERRERÍA - 40000 MALLA 100%
TEL: 943 17 20 00 - 40000 MALLA 100% 00

KULTURA[>]

Kepa Aginako

BERTSOLARITZA>SAIOA

Martxoak 8 bertsotarako aitzakia Berrizen

Emakumeen Nazioarteko Eguneko Berrizko kultur etxeko hitzordua da goiko irudian gordetako: emakumeen bertso saioa. Eta oholtza gainetik egindako aldarrikapenatariko bat: berdintasunaren adierazle argienatariko bat litzatekeela balizko Gizonen Egunerako antolatutako gizonen bertso saioa.

Domekan, baina, Emakumeen Egunarena aitzakia perfektua izan zen Amaia Agirre, Erika Lagoma, Maddalen Arzallus, Miren Amuriza, Iratxe Ibarra zein Onintza Enbeita bertsoan eta Maite Berriozabal gaiak proposatzen batzeko Berrizko Kultur Etxeko eszenatoki gainean.

Amaia Agirrek agurrean kantatu zuenez, nahikoa espektatiba sortu zuen saioak, eta txalo egin eta bertsogintzaz goatzeko irrikaz igarri zeitekeen entzulegoa.

Eta izan ziren, bai, txaloak: Patxi Lopez, Basagoiti eta jeltzalea hauteskunde osteko bileran; Romeo eta Julietaren azalean lan kontratua bukatzean duten eta albisteei beste kolore bat eman nahi dieten kazetarien larruan, senarrak kamiolari dituzten eta goiz batean ohean elkarren ondoan esnatzen diren emakumeen baitan edo herritarren bizimodua ezagutzeko lana duten mamuen Andikoan barnako ibilerak kontatzeko paperean bizkor ibili ziren bertsolari gazteak. ■ I.E.

Emakume bertsolarien saioa izan zen domeka iluntzean

12 > Aka Dantz, zapatuan Arriolan

Martxoaren 14an, 18:00etatik aurrera, break dance eta bestelako dantza zein gorputz adierazpen estiloen lehiaketa egingo dute



13 > Olerkiak margoz busten

Makuso, Otxoteko eta Gorrotxategik idatzitako olerkiak koloreekin eta bere ikuskerarekin margotu ditu Imanol Larrinaga durangarrak.

DANTZA>LEHIAKETA

Kaleko dantzen bilgune bilakatuko da zapatuan Elorrioko Arriola

Estreinakoz egingo dute martxoaren 14an Aka Dantz lehiaketa, eta zazpi talde ariko dira

Maiatzaren 2an Bilboko La Casillan izango den Break On Stage jaialdiaren aurretik, kaleko dantzen zaleek Elorrioko Arriolan dute aukera: Aka Dantz dantza lehiaketaren lehenengo edizioa egingo da martxoaren 14an, 18:00etan. Break dancea zein bestelako dantza estiloak irakasten dituzten dantza eskoletan zabaldu dute deialdia antolatzaileek, eta parte hartuko duten zazpi talderen konfirmazioa badute jadanik.

500 euro eta Break On Stage-n aritzea sari

Zazpi taldek konfirmatu dute parte-hartzea

Elkarrengandik ikasteko

Diru saria lortzeko (500 euroko lehenengo saria, 300eko bigarrena eta 100eko hirugarrena) helburuz lehiatuko dira, besteak beste, Bizkaitik, Nafarroatik eta Zaragozatik etorritako dantzariak.

Antolatzaileek batez ere nabarmendu dutenez, ordea, dantzariak euren taldeetan egiten duten lana konpartitzeko zein batzuek besteen lana ikusi eta elkarrengandik ikasteko gune bilakatuko dute Arriola, martxoaren 14ko kale dantzen Aka Dantz lehiaketaren lehenengo edizioan.



Bi eta sei kide artean dituzten taldeetan, lehiaketarako prestatu dituzten hiru minutu inguruko koreografiak erakutsiko dituzte; kale dantzen esparruan dagoen aniztasuna islatuz. Besteak beste, locking, popping, hip-hop, new style, break-dance, funky, eta urban dance estiloetako dantzaldiak izango dira ikusgai Arriolako biharko emanaldi eta lehiaketan.

Gero eta zale gehiago dituzten dantza mota hauetan euren

teknika hobetu eta koreografia original eta kreatiboak sortzen saiatzen diren dantzarien hartue-manerako aitzakia ere izango da Elorrioko Arriolakoa.

Elkarrengandik ikasteko espazio izan nahi du Aka Dantzek

Break On Stage jaialdiko zuzendari artistikoek eta dantza programatzaileek osatuko duten epaimahaiaren lana izango da, berriz, bihar bertatik bertara aurkeztuko dituzten koreografiak kalitate onenekoak eta originalenak begitantzen zaizkienak aukeratzea. Izan ere, maiatzean nazioarteko break dantzari onenak ekarriko dituen Break On Stage jaialdian ariko da Aka Dantzen irabazle hautatzen dutena. ■I.E.

PINTURA>ERAKUSKETA

Ezkurdiko aretoa betetzen duten lau artistaren koadroak

Martxoaren 15a bitartean izango da ikusgai Ezkurdiko aretoko erakusketa



Martxoaren lehenengo astean inauguratu zuten erakusketa, eta domeka honetara arte Durango-ko Ezkurdiko erakusketa aretoan ikusgai izango da. Raimundo Argos, Carlos Diez, Carlos Espiga eta Paola de Miguel pintore bizkaitarren koadroek betetzen dute Ezkurdiko aretoko horma.

Lau pintoreen sorkuntzaren aniztasuna erakusten duten 24 koadro batu dituzte erakusketan. Aretoko sarrera atetik gertuen figuratiboenak diren lanak daude, eta aretoan barneratu ahala ur-margoarekin landutako irudi abstraktuagoak aurkituko ditu bisitariak. Bere sentimendu eta barneko sensazioak koadroetan islatzen saia-

tzen den Paola de Miguelen lanak ere topatuko ditu bisitariak aretoan zeharreko ibileran. Ametsen mundua bere koadroetan biltzeko saiakeran egindako lanak dira, tarteka elementu figuratiboak ere barneratzen dituztenak.

Erakusketan, Durango eta Otxandio leku ezagunak era figuratiboagoan jasotzen dituzte parte hartzen duten beste artistek: aldameneko irudian jaso dugun Durangoko Andra Mariko elizpearen margoa da horren adibideetako bat. ■I.E.

Hogeita lau koadro daude erakusketan

Lau pintoreen lana dago Ezkurdin ikusgai

GEURE DURANGALDEA



Angel Zelaieta Idazlea

Longa jenerala Indautxu hotelean

Joan den udabarrian aurkeztu eban José Pardo de Santayana y Gómez de Oleak *Francisco de Longa, de guerrillero a General/en la Guerra de la Independencia. / Historia de una guerrilla* 517 orrialdetako liburua Bilboko Indautxu hotelean, El Sitio sozietatearen eskutik.

Francisco Tomás de Anchía y Urquiza deituraz bataio agirian agertzen den Longa Jenerala, Mallabiko Longan jaio zen 1783ko apirilaren 10ean. Hirugarren ezkontzan María de Urquiza e Ituarterekin ezkonduko Isidro de Anchía Guericagoenchearen zazpigarren umea eizzen. “*Esta circunstancia explica, en parte –dino beronen ondorengo lez agertzen den José Pardok–, su pronta salida del solar familiar (...) El sistema de mayorazgo condicionaba que a los hijos e hijas excluidos de la herencia no les quedara otra alternativa que la soltería (...) o la salida del caserío para ingresar en la Iglesia, el ejército, aprender algún oficio o la emigración a América*”.

Mutiko zela, Markinako Miguel Andrés de Barroetarekin ikasi ei zituen errementari-lanak. Hantxe ezagutu ei zituen, Konbentzinoko Gerra-tearen gorabeherak: “*(...) vivió el ambiente bélico (...), las causas por las que se luchaba: la defensa de la patria y de los valores tradicionales frente a la Francia revolucionaria*”.

Joan La Puebla de Arganzónen errementari etxera eta bertoko alaba María Ángela Tros de Ilarduyarekin ezkondu zen 1807. urtean. Hantxe ekin eutsen Napoleonen Armadari kontra egiteari, segurutzat bere “*sentimiento patriótico y de rechazo a la imposición francesa, su espíritu aventurero y su afán de gloria personal*” zela-eta.

Zeharo gatz ei zen gerrilariok Napoleonen aurka ezer lortzea: “*Rara vez una guerrilla era capaz de oponerse al orden, la acometida y disciplina de las fuerzas napoleónicas*”. Longa eta bereek, baina, gehiago egin eutsien frantsesteari. Izan be “*corazón de un león, los pies de una liebre y el vientre de una mosca*” zeukiezen, eduki be eta.

PINTURA > ELKARRIZKETA

“Akuarela oso teknika aproposa da poemetako irudi iheskorrak adierazteko”

Martxoaren 24a arte Gernikan ikusgai dago **Imanol Larrinaga** margolariaren eta hiru poetaren elkarlanaren emaitza: ‘Hitzaren itzalak’. Durangora ere ekarriko duten erakusketa bereziaz egin digu berba

Erakusketa ibiltaria da ‘Hitzaren itzalak’ deitu dozuena.

Martxoaren 24a arte Gernikan izango da ikusgai, eta erakusketa ibiltariak hartzen ditueen lekuetan izango da urte honetan zehar. Bizkaian zehar, Zornotzan, Plentzian, Durangon...

Zelan sortu zen poetekin elkarlanean aritzeko aukera?

Luze jo dauen proiektua da: 2004an hasi ginen, garai haretan Durangoko Institutuko filosofia irakasle zen Juan Ramon Makusogaz. Laguna eta lankidea neban, eta garai haretan poema liburu bategaz zebilen bueltaka. Irakurtzeko emon eustan, eta komentatu genduen hortik irudiak ateratzea polita litzatekela. Eta liburuaren atal bakotzeko marrazki bat egin neban, lau marrazki osotuz.

Zer liburu zen?

Bizitzeak hil egiten du liburua zen orduan prestatzen zebilen. Hor hasi ginen hartu-emonetan, eta publikatu egin ziren irudi horreek: liburuaren kontrazalean agertzen dira. Gero, 2006an argitaratu eban *Hiri gorazarre* libururako beren beregi egin nituen marrazkiak.

Zer bildu dozu erakusketan?

Makuso, Gorrotxategi eta Otxotekoren olerkien gainean egin dako lanaren aukeraketa bat egin dogu: bakotxaren bost poema eta marrazkien bertsino barria eta erakusketaren aurkezpen testuari jagokona egin ditut.

“Poema bakotxari buruzko irudi bana sortu dot erakusketarako”

Zelan landu zendueen?

Irudi koaderno bat egiten joatea da pentsatu nebana, poemak irakurri eta bat-batekotasunaren bitartez poema bakotxari buruzko irudi bat sortzen saiatu nintzen.

Eta bat-batekotasun horizelan lortzen da?

Poema ilustratzea gauza berezi samarra izan zen; poetek hitza dabe funtzeko elementu, eta guk pintoreok hitzekin hartu-emon txikia daukagu. Pentsatu neban egokiena ez zela ilustrazio bat egitea, poematik *flash* moduko bat atera eta ha islatzen saiatzea baino.

“Azken urteotan gehien erabiltzen dodan teknika akuarela da”

Poesia irakurtzean be irudiak sortzen doguz irudimenean...

Kasu honetan, Makuso, Gorrotxategi eta Otxotekok pentsamenduaren poesia aldarrikatzen dabe; hau da, oso poesia kontzeptuala. Nik ikusi neban pintore moduan ezin nituela poemetatik ateratako irudiak islatu; neuk be pinturaren funtsera joan behar nebala. Gizaia, maitasuna, heriotza, bizitza, hutsunea... lako kontzeptuak darabilez, eta hori iruditan islatzea ia-ia ezinezkoa da.

Eta nondik jo dozu orduan?

Ohartu nintzen, poeta bakoitxak badaukazela bere kontzeptuak. Eta sinbolo moduan hartu nituen horreek: kolore batzuk aukeratu nituen, eta horreen bitartez joan nintzen islatzen poeta bakotxaren esanahia.

Koloreak zeren arabera?

Juan Ramon Makusoren *Hiri gorazarre* poema-liburuan hiri eta gizakia dira kontzeptu protagonistak. Niretzako horreek izan ziren kolore beltza eta morea. Aritz Gorrotxategiren *Zaldi hustuak*en Troya agertzen da, eta planteatzen dau hutsunea, eta baita heriotzatik zelan sortzen den bizitza eta bizitzatik zelan joaten garen barriro heriotzara be. Itsasoa eta mitoa, urdina eta horia jagokez.



Iban Gorriti

Pello Otxotekoren olerkiei buruzko irudiak gero...

Pello Otxotekoren poetikan, batez be, maitasuna dagainagusia, eta goizalba: maitasuna berdez eta goizalba larrosaz adierazi dot. Maitasuna zentzu askotan dago planteatuta, sentsazio moduan. Usaina, sentsibiltatea eta sentsualitatea be jasotzen neban hemen.

Teknikari jagokonez?

Azken urteotan akuarela erabiltzen dot gehien, eta badauka bere sinbologia; hiru poetekin irudiak sortzen hasi nintzenean, ura oso elementu poetikoa zela pentsatu neban: pintatzerakoan ura ez dozu guztiz kontrolatzen, ura badoa koloreak libertate osoz nahastuz. Zu kontrolatzen ahalegindu arren, ura joan egingo da paperaren gainean bere bidea eginez. Poema bat irakurtzerakoan geuk poema egin egiten dogun moduan egiten dau urak koadroa.

Lehenago be landu izan dozu akuarela...

Bai, baina lan honegaz ikusi dodana uraren potentzialitate guztia izan da. Lan honetarako teknika hau behar neban: poe-

“Bost olerki eta bakotxari buruzko irudi bana dagoz ikusgai”

“Irakurleak poema lez, bere erara egiten dau urak be koadroa”

“Lan honi eskerrak uraren potentzialitate guztia ikusi dot”

tika munduan iradokizunekin zabilz beti bueltaka, irudi oso iheskorak ateratzen dira poemetatik, eta hori islatzeko teknika aproposa da akuarela.

Zelakoa izan da elkarlana?

Oso emankorra izan da, eta proposatzen doguna oso interesgarria dela uste dot: poemak egiterakoan sortze-prozesu bat dago, marrazkiak egiterakoan bigarrena eta erakusketan ipintzerakoan hirugarrena: irudia eta poema aldamenen agertzen dira. Poetak bere eskuz idatzitako poemak dagoz erakusketan. Irudi eta hitzen arteko harreman horretatik hirugarren aldiz sortzen dau ikusleak esanahi hori. Kontzeptu barria sortzen saiatu gara erakusketan.

Irakasle zara...

Gaztelarako irakasle naiz ogibidez, eta pintore bizibidez. Nik nere burua pintoretzat daukat, pintore moduan pentsatzen dot.

Zer darabilzu eskuartean?

Laugarren poema liburua aterako dau Makusok; heriotza gai nagusi daukan oso poetika potentea da, eta horreek margotzeari ekingo deusat. ■ I.E.

MUSIKA> KONTZERTUA

Esperimentazio akustikoa lantzen duen taldea osatzen dute: horixe diote Xabi Strudellek, Nerea Olaxak, Hans Dieckmannek, Gorka Sesmak eta Eñaut Balentziagak Zura taldearen aurkezpen testuan.

Musikaren alorrean duten urteetako esperientzia oinarri hartuta, esperimentazio horren emaitza zuzenean erakusten izango da Zura, martxoaren 20an 22:30etik aurrera, Elorrioko Ateneoan. 2008an kaleratutako *Kiribil* bigarren diskoan bildu dituzten kantak eskainiko dituzte kontzertuan: Brasilen jatorria duen bossa nova dute euren doinuaren oinarri.

Esperimentazioaren bidean

Bossa nova, rocka eta funka uztartzen dituzte, tradizioa eta doinu berritzaileak nahastuz. Diskoaren grabazioan kolaboratzaile izan dituzte, besteak beste, Ken Zazpi taldeko Eñaut Elorrieta, Gose taldeko Ines, Anari eta Sorkun.

Zura 90eko hamarkadan Euskal Herriko musika mugimenduan erreferentzia izan ziren taldeetan aritutako musikariek 2000 urtearen bueltan sortutako taldea da: Dut taldean jotzen zuen Xabi Strudell eta Beti Mugan taldeko Martxel Mariskalek sortu zuten taldea, eta rock esperimentalak lantzen zuten hasiera hartan.

Kiribil izeneko bigarren diskoan, ordea, Bossa Nova eta Samba doinuak landu dituzte gehienbat. Rock and rollaz haratago bada goela musika interesgarria egiterik erakutsi nahi omen dute talde berrian, euren berbetan, gauzak sentimenduz eginak daudenean berdin baitira etiketak.

‘Kiribil’ bigarren diskoak kantak aurkeztuko dituzte

Dj Ura-ren emanaldia ere izango da gero

Strubellek “musikalki ez itxia geratzeko” saioan topatutako musiken emanaldia ere egingo du Elorrioko Arriolan: Dj Ura lez ere jardungo du martxoaren 20ko Elorrioko kontzertuaren ondorengo emanaldian. Hip hop, free jazz, drum and bass, rock, metal, bossa, elektronika, dub, reagge eta soul doinuak ekarriko ditu. ■ I.E.

Bossa nova doinuak ekarriko ditu Zura taldeak Hondarribitik

Martxoaren 20an izango da Hondarribiko Zura taldea Elorrioko Ateneoan zuzenean jotzen: bigarren diskoaren aurkezpena egingo dute bertan



DANTZA> ERROMERIA



Kepa Aginako

Martitzen honetan ere izan da Plateruena dantzaz bete duen AIKoren hitzordurik, bai na joan zen zapatuan izan zen erromerian hartutako irudia da albokoa. Asteazkenetik parte hartzen duten lagunak batu ziren zapatuko Plateruenerako erromerian.

Urtarrilean ekin zieten Plateruenerako saioei, eta hainbat lagun batzen da hitzordura falta barik: zuzenean jotako musika eta irakasleen azalpenak entzuterak, baina, batez ere, lehenago herrietako plazak bezala Plateruena dantzaren bidez harremanetarako gune bilakatzen dira.

Dantzaren alde ludikoena bizitzera animatzen dute jendea AIKO ekimenean eta, besteak beste, soka-dantza, jota, pasodoblea, polka edo kontrapasa lako dantzak ikasteko aukera eskaintzen dizkiete parte-hartzaileei. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



MARTXOAK 13 22:00etan
LA PEGATINA (PPCC) + DJ BULL (EH)
LA MANDARINA TOUR 2009
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8 euro.



MARTXOAK 14 21:30etan
NO FUN AT ALL +
EASYWAY + NO CHILDREN
KONTZERTUA. Sarrera: 15-18 euro.




MARTXOAK 21 22:00etan
VOMITO +
NEVER SURRENDER
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Martxoak 14 igandea 18:00etan
larunbata 20:00etan



5 PIEZAS PARA TOMAR
UN CAFE
Megaló-Teatro Móvil (Madrid)



KARTOIBIRAKA
Markelñe Antzerki Taldea (Zornotza)

San Agustín
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA



anboto astekariak Eusko Labelarekin batera saski bat zozketatuko dau hilero



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

Zenbat eta gehiago bialdu orduan eta aukera gehiago

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Santana, 6 • 48200 Durango



EROSKI

ABADIÑO

0€* 1000 KARTZEN BETIRAKO

0€ GUTXIENAKO

0€ ALTAKO

31,92€

40 urte zurekin

99,92€

9 MPX

CASIO EXILIM

SUTSTECH

1.5"

4 GB

3.1 MEGA PIXEL



Kalebarria z/g - 48200 Durango
94 620 18 93 - Faxe: 94 681 64 03

Arrike
Liburudenda



AUKERA AZOKARIK
ONENA IZAN DA,
BAINA AUKERAN
ZUEK ONENAK



Asoc. Comerciantes Durango-Iurretako Dendarien Elkarte

eskerrik esko!

Artekale, 2
Durango



94 603 04 47

Sándalo

DURANGO
Complementos para el hombre

BEHARRIZANETARAKO, GUTIZIA BATERAKO,
MODA JARRAITZEKO, OPARITZEKO, ...

GIZONEZKOEN OSAGARRIAK, DENAK, LEKU BEREAN

- > ALTZAIRUZKO ETA ZILARREZKO BITXIAK
- > BILLETE-ZORROAK
- > SOIN-UHALDUN ZORROAK
- > BIDAI- ETA KIROL-POLTSAK
- > GERRIKOAK
- > GORBATAK
- > MAHUKA-ORRATZAK
- > BOTOI-ESTALTZAILEAK
- > ESKULARRUAK
- > ERLOJU-GORDELEKUA

- > GILTZATAKOA
- > NEZESERRAK
- > MALETAK
- > PC MALETATXOA / PAPER-ZORROAK
- > DIRU-ZORROAK
- > ATERKIAK
- > ZAPIAK / BUFANDAK
- > TXAPELAK
- > ... ETAB

ERITZIA[>]

Gutunak



Denok "terroristak"

Aste honetan, hilaren 10ean, *Berria* egunkariaren azalean albiste beldurgarria irakurri dugu: "AHTren kontrako ekintzak terrorismo delitutzat jotzeko agindu du Ertzaintzak". Egia esan, bagenekien polizia autonomikoa azken hileotan horretan ari zela, baina agindu hori egunkarian idatziz ikustea izutzeko modukoa da.

Albistearen arabera, polizia autonomikoak protokolo bat idatzita dauka, eta AHTren aurka egiten diren "sabotajeak" "terrorismo"tzat jo eta kasuak Madrilgo Auzitegi Nazionalera bidaliko ditu. Esan bezala, aspalditxo ikusten ari gara jokaera hori, baina "sabotajeekin" beharrean, desobedientzia zibileko ekintza baketsuekin egin dute: Beasainen zebra-bide batean oinez atzera-aurrera ibilita trafikoa oztopatzea; Zaratamoko obretan hainbat pertsona elkarri lotzea; Bilbon ADIFen erakusketan batean protesta egitea; Ordizian tunela egiteko makinetara lotzea; eta Urbinako manifestazioan obretara modu bake-tsuan sartzea.

Guzti-guztiak benetako ekintza "terroristak", ezta? Bada, kasu horiek guztiak Madrilera bidali dituzte... eta horietako batzuk hantxe ere ez dituzte onartu!

EAJ lotsagarri dabil. Proiektu osoaren informazio eza eta inposaketa nahikoa ez, eta edozer egiteko prest daude gu beldurtzeko eta gu isilarazteko. Eta, egia esan, beldurtu, beldurtzen gara halakoak irakurrita (eta nor ez!), baina isildu, ez, hori ez dute lortuko.

Argi utzi dute hasieratik Gasteizko eta Madrilgo gobernuek eta bertan agintzen duten alderdiek ez daukatela inolako argudiorik guk ematen ditugun arrazoiei aurre egiteko. Beraz, hitz egiteko ezer ez daukatenez, errepresioa erabiltzea erabaki dute; horretan bai, horretan zalantzarik gabe garaitu egingo gaituzte-eta. Euren poliziak, komunikabideak, legeak, epaileak eta kartzelak gure kontra erabiltzen dituzte, badakitelako gure hitzen aurrean ez daukatela zer esanik.

Obrak hasi zituztenetik, euren helburua eztabaida desbideratzea izan da; trenaren inguruko eztabaidari muzin egin diote, eta Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikarekin lotu nahi izan dute, guztia nahasteko. Horretan, komunikabideen laguntza daukate, baina jakin dezatela gu ez gaituztela horrantz eramango.

Gure eztabaida trenaren eta gizarte ereduaren ingurukoa da, hala ere, badakite "gai potoloarekin" lotuz gero erraz desitxuratuko dutela dena eta demagogia zikina egin ahal izango dutela trenaren alde.

18/98 makrosumarioaren aurka hitz egin dute buruzagi jeltzaleek inoiz, "guztia ETA da" teorian oinarrituta gauza desberdinak zaku berean sartu izan direlako kexatzen. Orain, eurak gauza berbera egiten ari dira, horrela jokatzeko komeni zaielako. Euren indarraren arrazoiak inposatu nahi digute gure arrazoiaren indarraren gainetik, baina, esan bezala, beldurtu, beldurtuko gaituzte, baina isilarazi, inoiz ez!

EAJk bidea ireki du gutako asko (zu zeu ere bai, behar bada) egunen batean "terroristatzat" har gaitzaten. Horren aurrean, jakin dezatela herritar guztiek, guk, orain arte bezala, gizartearen "terrorea" zabaltzen jarraituko dugula: informazioa ematen eta protesta egiten. Izan ere, horrek eragiten die benetako "terrorea" agintari politikoei: euren negozio ustelak kolokan ikusteak.

Durangoko AHT Gelditu! Elkarlana

Martxoak 8

Zenbait pertsonaren ustez, berdintasuna lortuta dago gizon eta emakumezkoen artean eta, beraz, berdintasunaren alde ari gare-nok gehiegikerian erori gara.

Feminista-mespretxuzko zentzua emanez hitz honi-batzuk besterik ez garelako eta gauzak bere onetik ateratzen ditugula. Legezko berdintasuna lortu den herri baten ez da batere erraza oraindik emakumeek jasaten duten diskriminazioaren kontzientzia lortzea. Lege arloan asko aurreratu da, baina matxismoak bertan dirau, ezkutuagoan bada ere. Zenbait neskak uste du ez dagoela ezer eskatzekorik, eta feminismoak emakumezkoak nagusitzea lortu nahi duela.

Itxurakeriazko berdintasun hori egunerokotasunarekin aurrez aurre jarritz gero, oraindik zer hobetu dagoela esaten digu.

Andrazkoak egunero ia bi ordu gehiago egiten du etxeko lanetan, lan bera egiteagatik diru gutxiago eskuratzen du, emakumezkoen langabezia tasa gizonezkoena baino askoz handiagoa da eta, gainera, enpresetako zuzendari postuetan oraindik ez du apenas ezer lortu. Martxoaren 8ko-Emakumeen Nazioarteko Eguna- ospakizuna soberan dagoela ere entzuten da. Zergaitik? Gizonezkoen egunik ez dagoelako. Zelan azaldu zerbait ulertu ez duenari? Berdintasuna ez da egun bateko kontua, hori argi dago, baina genero berdintasunean aurrerapausuak eman behar dira gizarte osoak kontzientzia har dezan eta horretarako beharrezko dira zenbait aldeko ekintza.

2009ko martxoan gaude, eta ezin dut burutik kendu anorexiari buruz ikusi nuen telebistako programa: kazetari batek, nahi-ta, gaixotasun bat hartzen du reality bat egitearren.

Hain modan dauden programa horietako bat zen. Itxuraz gizartearen ispilu direnetarikoa. Jateari utzi ondoren argal geratu zen, argal eta anorexiak jota. Baina zein da gazteei ematen diegun eredu-a? Uste nuen *Granjero busca esposa* ikusi ondoren ezin zela txar-ragorik egin. Programa pelikula zahar batetik aterata zegoela ematen zuen; gizon asko eta emankume gutxi zituzten karabana horietakoa. Programa matxista da, baina norena da errua? Katearena emateagatik, parte-hartzaileena euren matxismoagatik, edo parte hartzen duten emakumeena ez dutelako inolako feminismo-rik? Utzi ditzagun errudunak. Bila ditzagun konponbideak: berdintasunean oinarritutako heziketa zabal dezagun eta ez deza-gun eredu kaltegarriarik jarri. Aldeko ekintzen aurka daudenek berriz esango dute gizarte demokratikoan onartezinak diren neurri gehiegizkoak direla, baina historiak erakusten diguna zera da: "de jure" hutsezko berdintasuna ez dela nahiko "de facto" berdintasuna lortzeko. Ahalegin handiagoa behar da; gure errealitatea aldatzeko eta berdintasuna lortzeko neurri zehatzak beharrezkoak dira.

Txarra ote da feminismoa? Feminismoak ez du inoiz inor hil; bai, ordea, matxismoak.

Beharrezkoa da Emakumeen Nazioarteko Eguna? Zoritxarrez, bai. "Berdintasuna bilatu nahi dugu, ez eskubide eta teoria huts lege, ondorio eta egiazko ekintza lege baino." Lyndon B. Johnson.

Idoia Agorria (Durango)

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Gotzone Barandika

UPV/EHUKO irakasle eta ikertzailea

Transgenikoak

Genetikak gure bizitza aldatzeko izugarritzko ahalmena du, eta horrekin zerikusia duen gehienak iritzi polarizatuak sorrarazi ohi ditu. Elikagai transgenikoei dagokienean, gauza bera gertatzen da; erabat alde edo kontra jarri behar dugula dirudi. Baina, gai honetan, gehienetan bezalaxe, ezinbestekoak dira xehetasunak zein zehaztasunak.

Ohiko laborantzak eta ekologikoak ez bezala, transgenikoak erakunde ofizialen baimena behar du, zeintzuek horrela ekoiztutako elikagaien segurtasuna bermatzen baitute. Berme hori hiru alderditan dago oinarrituta: toxikotasunik eza, alergia sorrarazteko gaitasunik eza eta ingurumenean eraginik eza. Argi dago lehenengo biak gure osasunarekin dutela lotarri zuzena: beraz, lasai egon beharko ginateke ikuspuntu horretatik. Bestalde, pestizida eta herbizida gutxiago erabili behar dira laborantza-mota honetan.

Hala ere, ingurumen-eraginak ebaluatzea ez da horren simplea. Zelan neurtu bioiztasunaren galeraren epe luzeko eraginak? Eta ondorio ekonomikoak? Egun, labore transgeniko gehienak lurralde aberatsetan kontsumitzen dira, animalien elikaduran zein bioerregaien ekoizpe-nean. Beraz, momentuz elikagai transgenikoak ez dira erabiltzen gose eta pobrezia-ri aurre egiteko.

Beraz, alde batetik dauzkagu guztiz fidagarriak diren elikagai transgenikoak; eta, bestalde, laborantza-mota horren erabilera txarraren ondorioak. Agian, transgenikoak erabat baztertu behar-rean, haien abantailak aprobetxatzeko estrategia jasagarriak asmatu beharko genituzke: tokian tokiko ekonomia eta ingurumena zaintzen dituztenak, hain zuzen ere.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko martxoaren 13a - 8. urtea - 322 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

æek

**izan zaitez
KORRIKA
laguntzailea**

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA izatea.**

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org

euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira

**ongi
etorri**

16. korrika æek
Tuturra-Garretz itsa
martxoaren 27.ek, apirilaren 10.ek

**korrika
laguntzailea**

**ongi
etorri**
16. korrika

anboto
komunikabideak **>**

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 13an eta 14an

MAITASUNA ARDATZ

Maitasuna ulertzeko bost erari buruzko metafora ezkututzen dau Megaló Teatro-Movil-ek (Madril) Elorrioren eta Durangon aurkeztuko dauen ikuskizunean. Bost erata sortutako bost pieza dira oinarri; guztiek, baina, mantentzen dabe maitasuna lotune lez: bat-bateko maitemina, maitasun platonikoa, amodio idilikoa eta maitasun nartzizista erakutsiko deuskue; eta guztietan leial, zintzo eta iraunkorrena: adiskidantza.

ANTZERKIA

BERRIZ

> **Haurrentzako antzerkia: 'Beltzitina' (Panta Rhei)**, martxoaren 13an, 17:30ean, Kultur Etxean.



DURANGO

> **Haurrentzako antzerkia: 'Kartoibiraka' (Markeliñe)**, martxoaren 15ean, 18:00etan, San Agustín kurgunean.

ELORRIO

> **Eskeletatik Antzokira: 'Aukera jarrita' (Hortzmuga)**, martxoaren 18an, 12:30ean, Arriola antzokian.



ZORNOTZA

> **'Maná, Maná' (Los Ulen)**, martxoaren 13an, 21:00etan, Zornotza aretoan.



BERBALDIA

DURANGO

> **'Porqué es el pecho lo mejor' (Esnearen liga)**, martxoaren 16an, 18:00etan, Andragunean (www.laligadelaleche.org).

BESTEAK

ABADIÑO

> **Sagardotegira irteera** martxoaren 14an, Abadiñoko Gaztetxeak antolatuta. Izena emoteko bertaratu baino ez da egin behar.

DURANGO

> **Txiki Parka**, Landako erakustazokako 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Otsaileko eta martxoak asteburuetan egongo da zabalik, Udaleko Kultura Sailak antolatuta.

ELORRIO

> **'Piratak' (Pirritx, Porrotx eta Mari Motots)**, martxoaren 15ean, 15:30ean, Arriola antzokian. Intxorta asti taldeak antolatuta, 20. urteurrena dela-eta.



IURRETA

> **Umeendako eta gazteendako erromeria**, martxoaren 14an, 18:00etan, frontoian. Udaleko Kultura Sailak antolatuta.

> **Mendiko ibilbideak: lurreta-Berriz-Gaztelua-lurreta**, martxoaren 15ean, Maiztegi herri eskolako Guraso Elkartek eratuta. Irtetzeko hitzordua 09:00etan jarri dabe.

MALLABIA

> **Durungaldeko 54. Txistulari Eguna**, martxoaren 15ean, 12:00etan, Andra Maria elizan.



DANTZA

DURANGO


> **'5 piezas para tomar 1 café' (Madrilgo Megaló-Teatro móvil)**. Martxoaren 14an, 20:00etan, San Agustín kurgunean.

> **Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea)**. Martxoaren 17an, 19:30etik 21:00etara, Plateruenean.

ELORRIO

> **'5 piezas para tomar 1 café' (Madrilgo Megaló-Teatro móvil)**. Martxoaren 13an, 22:00etan, Arriola antzokian.

> **Aka Dantz kale dantzen lehiaketa (locking, popping, funky, urban dance...)**. Martxoaren 14an, 18:00etan, Arriola antzokian.



DEIAK

DURANGALDEA

> **Aisialdirako eskaintza kaleratu dau Ikastolen Elkartek**. Horren aurrean begiraleak be behar ditue. Horretan jardun gura daben gazteek apirilaren 5a arte daukie izena emotea. Euskalduna eta aisialdian esperientzia daukana izatea beharrezkoa da. Baita ingelesa menperatzea be, ingeles udalekuen kasuan. Kontuan hartuko dira: aisialdiko begirale/zuzendari titulua edukitzea, sorosle, elikagaien menperatzaile eta abarren titulua izatea eta formazioa zein gaitasun pertsonalak (www.bieikastola.net / www.ikastola.net)

DURANGO

> **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkartek deituta.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

> **Emakumearen Nazioarteko Eguneko Kartel Lehiaketan aurkeztu ditueen kartelak**, Errota kultur etxean, martxoaren 16a arte.

DURANGO

> **Erakusketa kolektiboa**. Martxoaren 15a bitartean, Ezkurdiko erakusta-

retoan. Durungaldeko Artista Elkartek antolatuta.

> **'Erraketariak'**. Martxoaren 29a bitartean Arte eta Historia Museoa. Objektuak, argazkiak, agiriak...

ELORRIO

> **'Emakumeak munduan' argazki erakusketa (Benito Pajares, 2006ko World Press Photo saria)**, martxoaren 26a arte, Iturri kultur etxean. Martxoaren 8a dela-eta erakusketa.



ERMUA

> **Margoak. M^a Carmen Piriz eta Luis Agüera**. Martxoaren 15a bitartean, Lobiano kurgunean.

IKASTAROAK

BERRIZ

> **'Kontserba eta mermelada' ikastaroa**, martxoaren 16an hasita, 17:45etik 20:45era, herri eskolako jantokian. Guztira, zazpi saioa egingo dira (94 682 40 36). EHNEK eratuta.



> **Igeri egiteko ikastaroak, mantenu gimnasia, nagusien gimnasia, step eta batuka, pilates, GAP eta kaloriak erretzeko ikastaroak**, Berrizburu kiroldegian. Izena emoteko epea martxoaren 21a arte dago zabalik; 10:00etatik 20:00etara jo leiteke bertara.



DURANGO

> **Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologiko ki haztea', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'**. Izena emoteko, Adinekoen Udal Egoitzan. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

> **Makrobiotika eta osasunerako sukaldaritza ikastaroa**, martxoaren 14 eta 15ean, apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an. Tina



Asensioaren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eratutako eskolak, Kurutzia ikastolan. Izena emoteko eta informazio gehiagorako Artakuso ekodendara jo leiteke edo honako telefonora deitu: 659 990 740 (Oihana).

IURRETA

> **Ikima tailerrak: laburmetrai tailerra**, martxoaren 13an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

> **Guraso eta hezitzaileendako ikastaroa**, martxoaren 24, 26, 30 eta 31n, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Izena emoteko epea martxoaren 20a artekoa da. Horretarako Ibarretxe kultur etxera edo Maiztegi herri eskolara jo leiteke (94 620 03 42 / kultur-etxea@iurreta.net).

IKUS ENTZUN

BERRIZ

> **'Berrizko herriak frankismoaren biktimei gorazarrea' ikus-entzunezkoa (Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkarte)**, martxoaren 14an, 19:00etan, Kultur Etxean.

> **'Bidaia intimoak' dokumentala (Jon Maiak zuzendutakoa)**, martxoaren 18an, 20:00etan, Kultur Etxean. Korrika16ren baitan antolatu dabe emanaldia.



ELORRIO

> **'Bidaia intimoak' dokumentala (Jon Maiak zuzendutakoa)**, martxoaren 19an, 20:00etan, Arriola antzokian. Korrika16ren baitan antolatutako emanaldia.

IPUINAK

IURRETA

> **Rai Bueno ipuin kontalariaren saioa**, martxoaren 13an, Udal Liburutegian: 17:30ean 3-4 urte bitartekoendako saioa, eta,



ATXONDOKO UDALA

IRAGARKIA

ARRAZOLAN SANEAMENDU SARERA HAINBAT BASERRI LOTZEKO LANAK EGITEKO publizidadedun prozedura negoziaturako deialdia.

ESLEITZAILEA: Atxondoko Udala

OINARRIZKO AURREKONTUA: 253.455,52 €.

ESKAINTZAK AURKEZTEKO IZENA EMOTEKO EPEA: 15 egun

BALDINTZA ADMINISTRATIBOAK: www.atxondo.net

BALDINTZA TEKNIKOAK, AGIRIAK ETA ARGIBIDEAK: Udal Bulegoetan

Atxondon, 2009ko martiaren 13an
Alkatea – Sin.: David Cobos Sarraoa

18:00etan bost urtetik gorakoenda-ko saioa.

LITERATURA

ERMUA

» 'Esanen aduanan' literatura eta musika uztartzen dituen emanaldia, martxoaren 17an, 19:00etan, Lobiano kulturgunean. Miren Agur Meabe, Leire Bilbao eta Yolanda Arrietarenak dira testuak. Musika, barriz, Esther Gabiola eta Uritze Lakarenak.

IURRETA

» Munduko emakumeen literatur tailerra, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18:30etik 20:30era, Udal Liburutegian. Aurretik halan eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe: (94 681 27 26 edo biblioteka@iurreta.net).

» Irakurketa kluba, martxoaren 17an, 19:00etan, Udal Liburutegian: Karmele Jaioren *Las manos de mi madre* liburua irakurriko dabe. Idazlea bera egongo da.



MUSIKA

DURANGO

» La Pegatina (PPCC) + DJ Bull (EH), martxoaren 13an, 22:00etan, Plateruena kafe antzokian.



» The Sastres (Durango) + Ostikada eta Barrura (Bilbo) + UKO (Donosti), martxoaren 13an, 22:00etan, Sapuetxe gaztetxean. Gaztetxe Biraren barruan antolatu dabe gaztetxeok kontzertu hori.



» No Fun At All + Not Available + No Children, martxoaren 14an, 21:30ean, Plateruenean.



Martxoaren 14an, 21:30ean

NO FUN AT ALL PLATERUENEAN

ELORRIO

» Plan B + Sospechosos, martxoaren 14an, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean.

ERMUA

» Alex TNT & Rick Perkins, (Blues-Katalunia eta AEB) martxoaren 14an, 20:00etan, Lobiano kulturgunean.



OTXANDIO

» Kantu afaria Anje Duhalde abeslariagaz.



Martxoaren 14an, 22:00etan, Arkotxe kultur elkartean.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» Umeendako zine emanaldia, martxoaren 15ean, 17:00etan, Kultur Etxean.

ERMUA

» Umeendako zine emanaldia: 'La isla de Nim' filma, martxoaren 15ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.



» Emakume zuzendarien zine-klub zikloa: '53 días de invierno' filma, martxoaren 19an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
The reader (El lector)
Zuzendaria: Stephen Daldry
barikua 13: 19:00 / 22:00
zapateria 14: 19:30 / 22:30
domeka 15: 19:30 / 22:30
astelehena 16: 19:00 / 22:00
martitzena 17: 20:00



Umeendako zinema
Rudi, el cerdito de carreras
zapateria 14: 17:00
domeka 15: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Mi nombre es Harvey Milk
Zuzendaria: Gus Van Sant
zapateria 14: 22:30
domeka 15: 20:00
astelehena 16: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza Aretoa
La Duda
Zuzendaria: John Patrick Shanley
zapateria 14: 22:00
domeka 15: 20:00
astelehena 16: 20:00



Umeendako zinema
Un Chiguagua en Beverly Hills
domeka 15: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 13
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Zapateria, 14
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenziaga / Etxebarria / Unamunzaga / Sagastizabal / Campillo / San Roma / (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
09:00-22:00
• Balenciaga
(Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Domeka, 15
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Astelehena, 16
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Martitzena, 17
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Eguaztena, 18
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Eguena, 19
09:00-09:00
• Navarro (Arteka 6 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOAK
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

22° BARIKUA
Eguzkia eta tenperatura gozoa. Hegoaldeko haizea bizi samar ibiliko da, ondorioz tenperatura beste apur bat igoko da. Goiza hotza izango da, eta izotza bota leike. Behe-lainoa sortuko da lehenengo orduetan.

20° ZAPATUA
Goiz partean zeru urdina nagusituko da eta haizea noraezean ibiliko da. Orduak aurrera egin ahala, haizea ipar-mendebaldetik finkatuko da. Egunaren amaiera aldera apurren bat busti leike.

16° DOMEKA

19° ASTELEHENA

22° MARTITZENA



**Durangaldeko usaina ezin
deutsugu transmititu,
baina Durangaldea
entzun, ukitu eta ikusteko...**

anboto 
komunikabideak

KIROLAK >



Iban Gorriti

Taldea berritu du Baquék

Cafés Baqué txirrindulari taldeak aurpegi berri askorekin ekin dio denboraldiari. Iazko taldetik hiru txirrindularik jarraitzen dute: Borja Abasolo abadiñarrak, Carlos Juez gasteiztarak eta Toni Garcia tarrasarrak. Gainerakoek estreinako urtea izango dute Durangoko taldean.

Guztira, 15 txirrindularik osatzen dute taldea. Horiatarik bost dira euskaldunak; Borja Collado eta Igor Plaza mungiarrek eta Igor Romero mutrikuarra, gorago aipatutako biez gainera. Hauek dira 2009ko Cafés Baqué taldea osatzen duten hamar txirrindulariak: Miguel Angel Lucena (Kordoba), Jesus Garcia (Avila), Luis Alberto Estévez (Granada), Juan Manuel Pérez (Granada), David Gutiérrez (Kantabria), Cristian Castro (Segovia), Oriol Llesuy

(Bartzelona), Victor Martínez (Castelló) eta Javier Martínez (Alicante).

Gutiérrez 23 urtez azpiko Espainiako txapelduna da; Llesui, berriz, elite mailako Espainiako txapelduna. Guztiak Ruben Gorosperen zuzendaritzapean ariko dira.

Eraberritzea

Taldea eraberritzeko arrazoi bat baino gehiago dago. Ruben Calvok, esaterako, Portugalgo talde profesional baterako urratsa eman du. Beste batzuk talde profesionaletako filialetara joan dira, aukera ona delakoan. Baina izan da halako egokitzapen baten beharra ere, espero zitekeen maila eman ez dutenen artean.

Taldea asteon aurkeztu duten arren, denboraldiari ekin

diote dagoeneko. Espainiako Kopako hiru lasterketa joan dira. Ariztondoko hirugarren proban Javier Martínez bigarren helmugaratu zen; sailkapen orokorrean bederatzigarren dago. Igor Romerok ere sasoiko ekin dio, eta hamaikagarren dago. Cafés Baqué taldea bera, berriz, hirugarren jarri da, Gipuzkoan ederto ibili eta gero. Domekan Madrilgo Macario sarian parte hartuko dute. ■ J.Derteano

Hiru txirrindularik jarraitzen dute iaiztik; gainerakoak berriak dira

24 Xakeko Euskal Liga gori-gori

Denetarik gertatu daiteke Euskal Ligako Lehen Mailako azken jardunaldian. Abadiñok igotzeko aukerak ditu, baina maila ere galdu dezake. Zailena maila mantentzea bera da.

25 Berrizek lasaitasuna nahi du

"Geratu daitezela emozio guztiarekin", pentsatuko dute berriztarrek xake ligari erreparatuta. Beheko postuak behin betirako uxatzea du helburu Galanen taldeak.

Emozioa eta eromena xake ligetako azken jardunaldian

Begi bat norbere erreginari begira, bestea ondokoari; karanbola asko eman daitezke Sestaoko jardunaldi erabakigarrian bihar



Abadiñok Oberenaren kontra jokatuko ditu azken jardunaldiko lau partiduak. Judit Fernandez

Kalkuluen eguna izango da bihar-koa. Euskadiko eta Bizkaiko xake ligak amaituko dira, eta, xakelariak buruko kalkuluak ez ezik eskukoak ere egin beharko dituzte. Bihar Sestaon jokatu-ko den jardunaldi bateratuan biziko den emozioa imajinatzeko adibide bat hauxe da: Abadiño Xake Taldeak puntuak behar ditu mailaz igotzeko zein mailari eusteko.

Abadiñarrak seigarren daude. Sestao B –hirugarrena, igoe- ra postuan– harrapatzeko puntu sorta handia behar dute. Baina beste ikuspuntu honekin panora- ma itxaropentsuagoa da: B talde- ek ezin dute igon maila bat gora- go A taldeak daudelako. Beraz, bai Orvina –lehenengo– bai Ses- tao Lehen Mailan geratuko dira. Horrek esan nahi du bosgarren sailkatua mailaz igo daitekeela.

Baina nork baliatuko du ego-

era hori? Hautagai asko daude eta lehiakortasun itzela. Gainera, begi bat gora eta bestea behera begira jarri beharra dago; begi eta erdi ere bai, beharbada. Jai- tsiera postuak bertan daude. Egi- dazu ez beste guztiek salbatzeko aukerak dituzte. “Aurten zailena maila berean geratzea da. Zori- txarrez, esango nuke jaitziera hurraro dugula igoera baino”, dio leray Galtzagorrik.

Zaldi Baltza eta Larrasoloeta
Abadiñoko xakelariaren aurrei- kuspentak grazia gutxi egingo die Zaldi Baltza taldeko jokalariei. Bizkaiko Goren Mailan azkenau- rreko daude eta bakarrik jaitzi behar luke. Abadiñok maila gal- tzen badu, ordea, Bizkaiko taldea denez, Gorengo Mailan azkenau- rrekoa ere jaitziko da. Hori ekidi- teko Barakaldori irabazi behar

diote, bihar, Elorrioren –Bizkaiko ligetan ez dago jardunaldi batera- turik– eta beste emaitzei begira geratu. Barakaldoren porrotak mesede handia egingo lioke Larrasoloetari. Durangarrak bigar- ren daude eta puntu erdi atzetik

**Abadiño jaitziko balitz
Zaldi Baltzak azken
aurreko postutik irten
beharko luke derrigor**

dute Barakaldo. Dena dela, atze- ra beharrean aurrera begiratu behar dute. Lehenengoa bakarrik igoko da, eta Leioa puntu eta erdi goitik dute. Rey Ardiden aur- ka lau puntuak batu behar dituzte Leioari presioa sartzeko. ■ J.D.

Errugbi topaketa bihar Elorrioren

Bizkaiko eskolen arteko errugbi topaketa egingo dute bihar 10:30ean Elorrioko errugbi zelaian. Pre-benjamin, benjamin eta kimu mailetako gaztetxoak batuko dira Elorrio Rugby Talde- ak antolatutako ekitaldian.

Guztira, bederatzi errugbi eskola batuko dira. Horietako zortzi euskaldunak dira: Elorrio, Durango, Gernika, Bilbao, Getxo, Kakarraldo, Mungia eta Gaztedi. Gonbidatu moduan, Santanderko Independiente de Rivago eskola- koek ere bisitatuko dute Elorrio. Helburua errugbiaz gozatuz gaz- tetxoaren artean elkarkidetzatza lako baloreak sustatzea da.

Iurretakok arnasa hartu du Urduñari irabazita

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Iurretakok etxean Urduñaren aurka (2-0). Horrenbestez, beheko postuetatik aldentzeko oso baliotsuak diren hiru puntu batu zituzten iurretarek.

Ligako azken sailkatuaren aurka ez zegoen huts egiterik, eta partidu ikaragarri ona osatu ez bazuten ere partidua irabazte-

**Hiru puntu baliotsu
batu zituzten Urduña
2-0 menderatuta**

ko adina aukera sortu zituzten. Maiderrrek eta Itsasek sartu zituzten golak. Bihar Deustuko- ren kontra jokatu dute kanpo- an. Aurten Deustuko etxean bai- no hobeto dabil etxetik kanpora; etxean hiru partidu irabazi dituzte eta zazpi galdu. Iurretakok, aldiz, dituen 19 puntuetatik 13 etxean lortutakoak ditu.

Bigarren Erregionalean Elo- rriok galdu egin zuen Paldarrak liderraren aurka (4-8). Hala ere, esan beharra dago bigarren zati- ra launako berdinketarekin iritsi zirela. Bihar Gernikaren kontra jokatu dute.

Unai Zamalloa
•Saskibaloia entrenatzailea



Martxoaren 8a dela-eta...

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, tipi- koa eta topikoa irudituko jatzue, baina, emaku- meen saskibaloia buruz berba egitera nator gaurkoan.

Eskualdean inoiz baino osasuntsuago eta indartsuago dabil saskibaloia emakumeen arte- an. Durangon, Zaldibarren, Berrizen, Elorrioren eta Zornotzan emakumeen saskibaloia taldeak ditugu, hainbat mailatan. Gizonezkoen saskibaloia- gar alderatuta, bai fitxetan bai talde kopuruan eta mailan be, goitik dabil emakumeen saskibaloia. Adibide moduan, aitatzekoa da Durangon muti- len talde bakotzeko emakumeen hiru talde dagozela harrobiko mailatan.

Egia esan, fisikoki emakumearen eta gizo- naren artean desberdintasun nabarmenak dagoz. Gaur egun, emakume bat mate bat egi- ten ikustea oso gaxa da, baina horregaitik baka- rrik emakumeen saskibaloia ez da eskasagoa. Askotan, teknikoki eta taktikoki askoz gehiago da, fisikoki bakarrik oinarrituta ez dagoelako.

17 urteaz hasi neban nire entrenatzaile ibi- libidea, eta lehenengo urtea izan ezik beste denak emakumezkoen saskibaloian eman ditut. Niretzat ibilbide hau oso oparoa izan da orain arte, eta etorkizunean be halakoa izatea itxaroten dot. Azken batean, saskibaloia da guztia.

Horregaitik, egun hori aprobetxatuz, emaku- me eta gizon askok emakumeen saskibaloia- ren alde gure eskualdean urteetan zehar egindako lana omendu gura dot.

Logika nagusitu zen eskualdeko derbian



Erosotasunez nagusitu zen Anbotopeko. Kepa Aginako

Durangarren arteko derbian Anbotopekok irabazi egin zion Tabirakori (67-81), aurreikuspe- nak betez. Horrela, Anbotope- kok bigarren jarraitzen du sei garaipen eta hiru porrotekin, Marrazoak taldearengandik garaipen batera. Tabirako azken postuan dago garaipen birekin.

Anbotopeko gehiago izan zen partiduan, arlo guztietan: errebotean, joko estatikoan, kontraerasoan... Lehen laurdenean parean amaitu zuten. Handik aurrera, kanpokoak nagusitu

ziren, nahiz eta hirugarren laur- denean sei puntura hurbiltzea lortu zuen Tabirakok.

Anbotopekok etxean joka- tuko du bihar, Rover taldearen aurka. Tabirakok bost porrot daramatza segidan; bihar Muski- zen kantxan jokatu dute.

**Tabirakok bost porrot
daramatza segidan;
Anbotopeko lider dago**



Berrizek partidu zaila du etzi Retuertoren aurka. J. Fernandez

Abadiño, Mallabia eta Berriz norgehiagoka

Liga luzea da eta denborak bakoitza bere tokian jarri ohi du, baina 21 jardunaldi joanda, Abadiñoko Lagun, Presion Break eta Mallabia Bastidak sekulako borroka dute Lehen Erregionalean. Gori-gori dago kontua. Iturriondo da liderra, 45 punturekin;

Bost punturen barruan daude lehen lau sailkatuak

Abadiño bigarren dago puntu bira, berriztarrek hiru puntura daude eta mallabitarrak bostera. Bihar Iturriondok eta Abadiñok elkarren aurka jokatuko dute. Presion Breakek Derio Pozgarri hartuko du etxean, eta Mallabiak Iturritxu bosgarren sailkatua bisitatuko du. Goikoen saltsatik aldenduta dagoena Abadiñoko Gaztetxie dugu. Abadiñarrak bederatzigarren daude, igoera postuetatik oso urruti.



Derbian hiruna egin zuten Presion Breakek eta Mallabiak. K.A.

Jaisteko arriskua betirako urrundu gura du Berrizek

Horretarako, Retuerto bigarren sailkatua menderatzen saiatuko da Berrizburun

Denboraldi deserosoa izaten ari da Berrizentzat. Sailkapeneko beheko postuetan dantzan dabiltza; orain postu bat gorago, orain bat beherago. Jaitsierako surik ez dute probatu, baina arnasa lasai eta patxadaz hartzeko modurik ere ez dute izan. Azkenaurrekoarekiko bederatzi puntuko aldea dute, baina Nikasio Galan ez da fidatzen: “Daukagun errenta bi-hiru partidutan galdu dezakegu. Ez dago lo hartzerik”, dio entrenatzaileak.

Etzi Retuertok bisitatuko du Berrizburu. Bigarren daude sailkapenean, Apurtuarterengandik puntu batera. Galanen ustez, Ohorezko Mailako talderik onena da: “Oso talde indartsua da, arlo guztietan: ondo jokatzen dute, fisikoki prestatuta daude, garaiera eta indarra dute... Nire ustez mailaz igotzeko faborito nagusiak dira, Apurtuarteren aurretik.

Beraz, puntu bat batzea ere ez litzateke emaitza txarra. Baina

Retuerto bigarren sailkatua, igandean, Berrizburun

zer taktika erabili horrelako talde baten aurka? “Goitik jokatzea alperrik da. Behetik saiatu behar dugu, baloia azkar mugituz eta bat-bikoak bilatuz”.

Etxean partidu bi bakarrik galdu dituzte; kanpoan bakarra irabazi dute

Urte irregularra
Berrizen jokamoldea ikusita, kanpoan etxean baino hobeto arituko zela ematen zuen. Orain arte, ordea, kontrakoa gertatu da. Etxean partidu bi bakarrik galdu dituzte. Kanpoan, aldiz, behin bakarrik itzuli dira hiru puntuekin. Joan zen astean 2-0 galdu zuten Ortuellan. Berriztarrek bederatzi jokalarirekin amaitu zuten partidua. Ondorioz, Jurdan Salterainek eta Xabi Bilbaok ezin dute jokatu etzi. Jon Biota taldera itzuliko da, zelai erdian. Zentral lanak Jon Martinezek bete ditzake; ezker-hegalekoak jokatu izan du defentsaren erdian. ■ J.D.

Loidi eta Urkijok ezin irabazi

XV. San Prudentzio Pilota Txapelketan Loidi eta Urkijo berriztarrek galdu egin zuten gazte mailan (15-18). Nolanahi ere, partidu borrokatua eta betebetekoa jokatu zuten Barañano-Amilibia bikote zornotzarren aurka. Kadete mailan, berriz, Errasti eta Maguregi iurretarrek 18-6 menderatu zituzten Brao eta Atutxa zornotzarrak. Partiduak ez zuen zeresan handirik eman, eta lurretako bikotea erraz nagusitu zen partiduan.


Lejarretak ondo hasi du Opena

Iñaki Lejarretak sendo hasi du Nazioarteko Mountain Bikearen Espainiako Opena. Orbea Racing Teameko txirrindulariak hirugarren egin zuen Avilesen (Asturias) korritutako lehen lasterketan. Atzetik aurrerako bidea egin zuen berriztarrak. Banyoles (Girona) herrian garatutako bigarren jardunaldian zazpigarren egin zuen, bere dohaietarako egokiena ez zen zirkuituan. Giant Italia taldeko Ivan Álvarezek irabazi zuen Banyoleseko lasterketa.

Agenda

FUTBOLA HIRUGARREN MAILA Kulturala - Laudio Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA Berriz - Retuerto Domekan, 11:30ean, Berrizburun
LEHEN ERREGIONALA (gizonak) Iurretako - Etxebarri Zapatuan, 17:00etan, Larrako-Zelain
BIGARREN ERREGIONALA (gizonak) Abadiño - Berriz B Zapatuan, 17:00etan, Astolan
Elorrio - Bermeo B Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden
Extremeño - Artibal B Domekan, 18:00etan, Tabiran
ARETO-FUTBOLA OHOREZKO B MAILA Sasikoa - Iturriondo Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA Presion Break - Derio Pozgarri Zapatuan, 17:00etan, Berrizburu kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA Abadiñoko Lagun - Mazusberri Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kiroldegian
Mallabia Bastida - Presion Break Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA Kurutziaga B - Lagun Onak Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian
Dantxari - Gu Lagunak Domekan, 17:00etan, Iurretako Institutuan
SASKIBALOIA LEHEN MAILA JAITSIERA FASEA (gizonak) Tabirako Baqué-La Peña Basket Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA (gizonak) Anbotopeko - Rover Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak) Anbotopeko - Julza Zaldúa Zapatuan, 18:00etan, Tabira kiroldegian

SAILKAPENAK >>			
Futbola / 3. maila / 4.taldea / gizonak	15- Laudio.....32	Saskibaloia / 1.maila / Jaitsiera Fasea/ gizonak	Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ emakumeak
1- Amurrio.....53	16- Alaves B.....27	1- Bide Bide.....7 (+66)	1- Abaroa.....18 (+218)
2- Portugalete.....53	17- Ordizia.....27	2- Bidegintza.....7 (+65)	2- Gemika.....17 (+240)
3- Elgoibar.....52	18- Eibar B.....26	3- Tabirako.....6 (+68)	3- Bera Bera.....17 (+346)
4- Beasain.....50	19- Zarautz.....23	4- Urdaneta.....6 (+41)	4- Atletico SN.....15 (+53)
5- Lagun Onak.....50	20- San Ignacio.....17	5- Mikeldi.....5 (-10)	5- Ardoi.....15 (+152)
6- Gemika.....46		6- Pamplona UPNA.....4 (-15)	6- Getxo.....13 (+63)
7- Zamudio.....42		7- Peña Basket.....3 (+28)	7- Obenasa.....13 (+47)
8- Basconia.....38		8- Mondragon Uni.....3 (-37)	8- Tabirako.....13 (+153)
9- Zalla.....38		9- Goierri.....3 (-114)	9- Arabako EHU.....8 (-182)
10- Leioa.....36		10- Getxo.....1 (-73)	11- Uni. Navarra.....8 (+3)
11- Kulturala.....36			12- Las Gaunas.....7 (-197)
12- Santurtzi.....35			13- Artieda.....6 (-170)
13- Arenas Getxo.....34			14- Easo.....5 (-231)
14- Amorebieta.....32			15- Astigaraga.....4 (-252)
			16- Deusto-Loiola.3 (-234)



Durangoko Kulturalak 38 gol sartu eta 36 jaso ditu orain arte

AMALURRA>



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Hemendik aurrera
Durangon be egongo
dira olio batzeko gune
finkoak, herriko zazpi
kaletan ipinita

Galdaren inbentarioa
egin ondoren,
diru-laguntzak
eskaintzeko ildo
zabalduko dau Udalak

Inbentarioa inkesta
bidez egingo dabe, eta
Udalak herritarrek parte
hartzea garrantzitsua
dela azpimarratu dau

Olio-bilketa sistemaren aldaketa: edukiontzi barriak ipini ditue

Galdaren inbentarioa be egingo dabe Durangon, herrian erabiltzen diren berotze-sistemen informazioa jasotzeko

Olioaren bilketa eta birziklapenerako edukiontziak ipini ditue Durangon, gai honen bilketa sistema aldatuz. Orain arte data zehazketan atera behar zen etxean erabiltako olio, eta kamioi batek batzen eban. Abadiñon moduan, hemendik aurrera Durangon be egongo dira olio batzeko gune finkoak.

Hain zuzen be, herriko zazpi kaletan egin jake lekua ontzi barriei: Askatasun etorbidean, Fray Juan Zumarragan, Olleria-Gallandan, San Fausto auzoko Zeharmendietan, Larrasoloetan, Ermodon eta Kurutziagan. Gainerako zarama moten edukiontziekin batera kokatu dira etxean erabiltako olio batzeko ontzi horreek; laranja kolorea daukie-nak dira. Segurutik, bat baino gehiago konturatu da honezkero etxetik zakarrak ateratzerakoan.

Beraz, hemendik aurrera bako-txak gura dauenean itzi ahalko dau olio ontzietan, inoren zain egon barik.

Inbentarioa

Bestalde, Durangoko Udalak berotze galdaren inbentarioa hasiko dau laster, oraintsu jakite-ra emon dabenez. Inbentario horren helburua, herrian erabili ohi diren galdara, erregai edo antzeko elementuen inguruko informazioa jasotzea da, horreek herriko airearen kalitatean sortu leikiezen ondorioak argitze alde-ra. Horretaz gainera, aldaketa klimatikoan eragiten daben isuri edo emisinoak ezagutzea be bada asmoa.

Azterketa horretan egindako lanaren ondoren, diru-laguntzak eskaintzeko ildo zabalduko dau

Udalak, erabiliko diren galdarek ezaugarri bi izan daiezen: ahalik eta ekonomikoenak izatea eta ingurumena gitxiago kaltetzeko egokiak izatea.

Laguntza eske

Denon ahotan dabilen gaia da aldaketa klimatikoa, eta, era berean, Durangoko Udaletik azaldu dabenez, "ingurugiroa geroago eta garrantzitsuagoa den arloa da".

Galdaren inbentario hori inkesta bidez egingo da, eta aurrez aipatutako garrantziaren bidetik, galderak egiten badeutseez laguntza emon eta erantzuteko eskaera egin deutse Udalak herritarrei.

Inkesta horretatik lortzen diren datuak erabat anonimoak izango dira.





IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK
Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeein...

ERRENTAN EMAN
Durango. Alde
zaharrek etxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...

SALDU
Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU
Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko (ingeles
beste irakasg
batzuk)...

BEREZIAK
Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
astelehenetik ostegunera. 09:30
aurrera...


OPARI
Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...

ANB (tarteak) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)
Tel.: 94 621 79 02

IRAGARKIAK

LANA

-Eskakerak
-Eskaintzak
ETXEBIZITZAK
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
IRAKASKUNTZA
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
MOTORRA
-Salgai
-Erosi
LOKALAK
-Errentan eman
-Errentan hartu
ANIMALIAK
-Salgai
-Erosi
BESTEAK
-Berba egin
-Salgai



Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

Zure iragarkia argitaratzeko:

Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

Edozein motako iragarkiak kontratatzeke honako telefonora deitu: 94 621 79 02

IRAGARKI PARTIKULARRAK

Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Berbaro elkarteak

langile-saltzailea behar du, Durangoko merkataritzan eta elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko. Harremanetarako: berbaro@berbaro.com

Berbaro elkarteak

tituludun begirale eta koordinatzaileak behar ditu udalekuetarako. Eman izena apirilaren 24a baino lehen. Harremanetarako: gazteak@berbaro.com

LANA

ESKAERAK

Durango. Lur sailean lan egiteko mutil bat behar da, astelehenetik barikura. Gidabaimena izatea derrigorra da. Tel.: 616 292 436.

Ikastolen elkarteak begiraleak behar ditu 2009ko aisialdi programarako. Beharrezkoa da euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelesa menperatzea (ingeleszko udalekuen kasuan). Apirilaren 5a baino lehen eman behar da izena. Informazioa: www.biekastola.net

Abadiño. irakasle bat behar da antzerki talde batean umeendako tailerrak antolatzeke. Derrigorrezko baldintza da euskaraz jakitea. Tel.: 666 379 572. Deitu 13:00etatik 15:00etara. Erlantz.

Durangaldea. Eskualdean zabalduko den hortz-klinika batean odontologia laguntzailea behar da. Derrigorra da euskaraz jakitea. Esperientzia baloratuko da. Bidali CVak Abadiñoko Txirri-Txirri gozoki dendara (Zeletabe 8c behe).

Durango. Aseguru merkataria behar da bezeroak lortu eta jarraipena egiteko. Derrigorra da 25-45 adin tartekoa izatea, Durangaldean bizitzea, eta diplomatura eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 74. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Automoziozko elektrizitateko teknikaria behar da. Derrigorra da 10 urteko esperientzia izatea eta inguruen bizitzea. Erreferentzia: 886. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Topografo laguntzailea behar da. Kanpoan eta gabinetean lan egiteko. Derrigorra da heziketa izatea eta inguruen bizitzea. Erreferentzia: 889. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Mallabia. Merkataritzako agentea behar da bezeroei bisitak egiteko. Derrigorra da 25-40 adin tartekoa izatea, Durangaldean bizitzea eta gida-baimena. Erreferentzia: 1.300. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar du.

Durango. Gazte arloko teknikari laguntzailea behar da, denbora libreko ekintzak dinamizatzeko. Derrigorra da euskara menperatzea, Durangaldean bizitzea eta kanpamenduen antolaketan esperientzia izatea. Erreferentzia: 1.485. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Euskara normalkuntza teknikaria behar da gaztelaniatik euskarara itzulpenak egiteko. Derrigorra da euskara menperatzea, Durangaldean bizitzea eta Euskal Filologian edo Itzulpengintzan lizentziaduna izatea. Erreferentzia: 1.487. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

ESKAITZAK

Neska umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko eta etxeak garbitzeko prest. Tel.: 639 847 627.

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 645 718 030

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka, gauaz edo asteburuetan. Tel.: 650 102 636

Andra euskalduna etxeko lanak egin eta haurrak eskolara eramateko prest. Tel.: 627 468 002

Haur hezkuntzako ikasle euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko eta lanetan laguntzeko prest. Tel.: 625 707 831

Andra euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 94 620 11 85 eta 699 745 723. Ines.

Astelehenetik ostiralera bitartean garbiketak egin edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 637 055 978

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxe bakarra salgai Marietan (Araba). 200 m2 ditu. 5 logela, egongela beheko suarekin, 3 komun eta sukaldea. Garajea 2 kotxerendako eta lorategia be badauka. Tel.: 628 450 965 edo 616 969 920

Durango. Pisua salgai. Goitik behera berriztatutako etxebizitza, estreinatze-ko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m2, 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra urrutiko agintarekin. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

Elorrio. 67 m2-ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Kanpora ematen du. Sotoarekin. Tel.: 94 682 02 26 eta 620 441 249

ERRENTAN EMAN

Durango. Pisua alokagai erdialdean. Prezio onean. Tel.: 653 011 166

Apartamentua alokagai Torreviejan. Urbanizazio pribatuan, gune berdea eta igerilekuekin. Hiru logela, komuna, sukaldea eta solariuma. Tel.: 615 779 622

Zaldibar. Pisua alokagai, guztiz egokituta: 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Eguzkitsua, herri erdian. Tel.: 615 746 231

Apartamentua alokagai Marina Dorren. Urtean zehar edozein denporalditan erabiltzeko moduan. Tel.: 670 214 924 (Miren) eta 610 539 991 (Santi)

ERRENTAN HARTU

Bikotea gara eta errentan hartzeko etxe bila gabilta Durangon edo inguruetan. Txakurra daukagunez, balkoia edo lur zatitxo bat nahi dugu. Tel.: 636 657 564

Emakume euskalduna eta 9 hilabeteko semea baserri baten bila alokatzeko edo konpartitzeko. Sukaldaritza begetarianoa eskaintzeko prest. Tel.: 94 681 15 05

KONPARTITU

Elorrio. Pisua konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Tel.: 609 939 095. (Lore)

INMOBILIARIAS

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txaleto bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatutak eraikitzen.
- Erretentxu: Txaleto bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatutak. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrekoko etxea lursailarekin salgai.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukalde jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Montebideo: Halla, sukalde-jantokia, logela bakarra, komuna eta balkoia. Etxe jantzia, igogailua. Eraikuntza barria.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Etxe jantzia, igogailuarekin eta berogailua hiriko gasarekin.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Antso Eztegiz: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Montebideo: Halla, egongela- jangela, sukaldea, 5 logela, 3 komun. Terraza eta ganbara. 150 m2.
- Arriluzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun. 2 Garaje. Etxea guztiz jantzia.
- Abadiño - Matiena: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Abadiño: Berriztatzeke. 3 solairuko etxea.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.

Durango. Pisua konpartitzen da, gela, bainugela, egongela propioa eta sukalde konpartituarekin. Tel.: 650 738 724

IRAKASKUNTZA EMAN

Ingeniaritza ikaslea klase partikularrak emateko prest: matematikak,fisika-kimika, euskara, ingelesa...(EGA eta advanced). Tel.: 616 345 890

Alemanierako klaseak ematen ditut. Etxera joateko prest nago. Tel.: 609 939 095

Ingeles eskola partikularrak ematen ditut. Gaztetxoei eskolako lanak egiten lagunduko nieke. Tel.: 620 339 224

Itzulpengintza ikasketak egindako neska euskalduna Durangaldean arratsaldez ingeles klaseak emateko prest.Tel.: 669 100 124

First tituludun maisua ingelesezko klaseak emateko prest. Adin guztietako jendearentzat. Euskara klaseak ere emoteko prest (EGA eta euskaldun zaharra). Tel.: 685 752 398 (Jon)

MOTORRA SALGAI

Suzuki Vitara 1900 Diesela salgai. Matrikulazino urtea 1999an. 168.000 km. Aurreko defentsak eta llantak aluminiozkoak ditu, eta bola be badauka. Deskaportable gogorra. Tel.: 616 333 017 edo 616 116 333

Renault Laguna 2.2 TD salgai. 1200 euro. Tel.: 652 709 440

Citröen c15 diesela salgai. 8 urte eta 140.000 km ditu. 1.000 euro. Tel.: 636 339 971

Renault megane dynamique 1.5 dci salgai. 5 ate, beltza, 2007ko abendu-koa. 30.000 km. Egoera onean. Tel.: 655 712 105.

Renault 21 Turbo Diesela salgai. 1.300 euro. Tel.: 679 475 785

ANIMALIAK OPARI

Txakurkumeak oparitzen ditut. Oso jostariak dira. Tel.: 679 290 896

BILA

Txakur baten bila nabil. Martxoaren 8an galdu nuen. Lau hilabete ditu eta arratoi-txakurra da. Baten batek aurkitu badu, deitu telefono honetara, mesedez. Tel.: 665 731 417

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Durango. 100 m2-ko lokala alokagai Alde Zaharrean. Edozein motatako negozioarako. Guztiz prestatua. Berehala lanean asteko moduan. Prezio merkea. Tel.: 615 794 459

Durango. 90 m2-ko lokala alokagai Barrenkalean. Edozein motatako negoziotarako. Berritu egin behar da. Prezio merkea, adosteko modukoa. Tel.: 615 794 459

Durango. Garaje itxia alokagai J.M. Altuna kalean. Tel.: 652 865 780 (deitu asteburuetan)

Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

Berriz. Trasteleku txiki bat alokagai Geltoki kalean. Tel.: 94 622 56 73

Mallabia. Garaje mekanikoa alokagai. Berehala lanean hasteko ekipamendu guztiarekin. 104 m2. Tel.: 635 757 228

Berriz. Garaje itxia alokagai. Kotxe bat sartzeko modukoa. Tel.: 94 622 56 73

BESTEAK SALGAI

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zm-ko kainoia. Eskuma estriatua eta ezberra liusua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekagaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berriku-sia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Bi technics sl-clz 1.200 (cd platoak) berriak salgai. Garantiarekin. 1.200 euro biak. Negoziatzeko aukera. Tel.: 616 095 655 (deitu 18:00etatik aurrera)

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edota Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoa egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

BEREZIAK

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest daude. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Eskuko desbrozadorekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Desbrozadorekin garbiketak egiten ditut.Orduko kobratzen dut. Tel.: 650 181 443

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzea nahi badozu deitu zerbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Fardoak. Fardoak egiten ditugu. Interesatuak deitu dezala ondoko telefono honetara: Tel.: 615 782 247

Gortinak, koltxak, etxeko osaga- rriak... josten dira. Etxeko arropen konponketak ere egiten dira. Partikula- rrentzat .Tel.: 675 707 275



Urarka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41
Faxa: 94 623 16 30 • argiñeta@euskalnet.net • www.argiñeta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO

18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 M-TARA.

BERRIZ

PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza. P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO

PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO

C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukalde eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria.

P79: 85m2. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Atikoa. Garajea eta trastelekua. Ia berria.

DURANGO

P81: 90 m2. 4 logela, egongela, sukalde eta komuna. Eguzkitsua.

ZALDIBAR

P90: 72 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Despentsa eta trastelekua.

ELORRIO


P80: 72 m2. Ia berria. 2 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.

P83: 92m2. Dena barriztuta. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Guztiz jantzia. Zentrikoa.

P77: 68 m2. Guztiz barriztatuta. 2 logela, egongela-sukalde eta bainugela. Jantzia. Oso polita. Berogailu radiantea. 90m2-ko lorategia.

ß P76: 44 m2. Berria. Atikoa igogailuarekin. Logela bakarra, egongela, sukalde eta bainugela. Gas naturaleko berogailua.

ß P65: 30 m2. Ia berria. Atikoa: logela 1, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. Prezio ona. Gas naturaleko kalefakzioa.



Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000 + BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000 + BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000 + BEZ
- 4 logela garajea eta trastelekuarekin: kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.000 m2-ko lursaila.
- Zornotza: Erdialdean. 2 logela, berritzeko.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitza k.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Mañarian: Etxebizitza ia berria. Bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko, erosi ia alokairu gisa.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Aramotz: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
- Aramotz: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
- Ezkurdi: 3 logela, egongela, sukalde eta barriztatu beharreko 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukalde eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Landakon: 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta 2 terraza. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: 2 logela. Azkeneko solairua. 80 m2-ko TERRAZA. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona nagusientza-ko egokia. Gurpil-aukiei egokitutako ateak dituen etxebizitza.Hego-Mendebalderuntz orientatua.



FRAY JUAN DE ZUMARRAGA, 4 • 48200 DURANGO
TEL.: 94 681 40 40

ETXEBIZITZA SALGAI

- Astxikin: Estreinatzeko. Ganbara eta garajea. Terraza.
- Frantzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
- Goienkale: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. 186.300 €.
- Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Murueta Torren: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Zeharkalean: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Komuna eta egongela. Ganbara. 210.350 €.
- Ezkurdi: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun.

IURRETA

- Bidebarrietan: 75 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Despentsa. Igogailua.234.400 €.
- Maspe kalean: 70 m2.3 logela, egongela, sukalde eta komuna.Igogailua.

ABADIÑO

- Estreinatzeko. 1 eta 2 logelako etxebizitzak. Egongela, 2 komun eta sukalde jantzia. Ganbara eta garajea. Guztiz kanpora ematen du.
- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
- Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.

MAÑARIA

- 2 solairuko etxea 1.400 m2-ko lur-sailarekin.

ATXONDO

- Duplexa: 120 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela.

ELORRIO

- Estreinatzeko. 336.000 €.

ZALDIBAR

- 3 logela. Trastelekua. Bizitzen sartzeko prest. 201.300 €.



San Agustinalde, 4 - 1 Eak.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukalde eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeko.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, eta komuna. Ganbara.
- Tabira: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukalde eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukalde eta egongela balkoiare-kin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia.
Ezkontzak, jaunartzeak, enpresa
bazkariak... Eguneko menua, karta,
menu bereziak.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

AKUILUAN

■ Aitziber Basauri ■ Argazkia: Judit Fernandez

LAUHORTZA



Pedro Pablo Arrinda
Irakaslea

Ni

Aste hauetan, hainbat hedabidetan, elkarte asko agertu da laguntza eske euren ekin-tzak aurrera ateratzeko. Hasiera baten badirudi albiste arrunt bat dela, baina nire ustez azpitik beste ondorio batzuk ageri dira.

Durangoan hainbat elkartetako (kirola, kultura...) arduradunekin berba egiterakoan, gauza bera errepikatzen dute: elkarteko ardurak edo ekintzak aurrera eramateko ez dagoela errelebo generazionalik; hau da, bolondres falta dagoela eta betikoak segitu behar dutela, bestela, elkar-tea desagertuko litzateke-eta.

Zer esan nahi du horrek? Laburbilduta, gizartearen edo gizakiaren baloreak aldatu direla, eta orain dela hogeita hamar urtekoekin ez daukagela zer ikusirik.

Gaur egungo hiritarrak, gehienbat, bere premiak edo nahiak indibidualki lortu nahi ditu, ez du hartzen, lehen bezala, kolektibitatearen ideia edo filosofia bere gain. Gizakia kontziente da talde batean dagoela, baina, halaber, jakitun da taldearen beharrik ez duela bere premiak asetzeko; are gehiago, baliteke bere nahiak lortzeko taldea oztopo bat izatea.

Hortik dator gaur egungo geldotasuna injustizien aurrean, bai politika bai sozial arloetan. Nire ongizatea ez bada ukitzen, hor konpon. Eta nigan eragina badu, nire kabuz irtengo naiz, ea taldearen izenean egiterakoan atekazartzen diren.

Gizartearen esparru askotako arduradunak jakitun dira gizartearen erantzun soziala orokorrean geldotasuna dela, eta hortik datoz gaur egungo erabaki harrigarriak. Baina dramatikoak ez izateko, salbuespenik egon, badago: Aupa Athletic!

"Bertoko mutikoren bat Athleticera heltzen denean jubilatuko naz"

Euskaltegiko "ikasle traketsena" ei da futbito eskolan 5-7 urteko umeekin diharduen mallabiar hau

Eibarren jaioa eta Ermuan hazia da Carlos Garcia. Mallabiatartzat dau, baina, bere burua, 22 urte daroaz bertan-eta. Futbito taldeko arduradun da azken 12 urtean, eta, umeekin, pazientzia ez eze, umeak direla jakitea behar dela uste dau. Euskaraz ikasteari ekin deitso.

Urteak daroaz futbito taldearen ardura hartuta...

Eskola kirolean jardun ondoren, jokatzeko gogotsu zegoen gazte batzuen eskariz hasi ginen. Arbitro federatu nintzen, horren bitartez eskaini eusten ardura.

Lan gogorra arbitroarena...

Nahiko gogorra; asko erretzen dau. 20-21 urte egin nituen. Futbitoagaz uztartzen hasi arren, itzi beharrean egon nintzen. Semea be hasi zen futboleko eta... larregi!

Denpora asko kentzen deustu futbitoak?

Ia denpora libre osoa. Emaztea daukat on hutsa! Etxean be egiten dot hainbat lan (aktak, pape-rak...). Baina, gustuko dot. Taber-nan karta-jokoan egiten ditue orduak batzuek, nik honetan.

Athleticera be joan jatzu jokala-riren bat, ezta?

Iñigo Pradera Eibarren eta Euska-diko Selekzinoan (kadetea) dogu, eta Dani Perez eta Ekaitz Amezua

Bizkaikoan. Inoiz Athletic egaz be entrenatu dau Perezek Lezaman. Bertoko mutikoren bat Athletic-era heltzean jubilatuko egingo naz.

Zubi-lana da zurea...

4-5 urte gaz hasten dira futbito eskolan. Baina, mailaren baten jokatzeko 10-12ko taldea behar da: Mallabian ezinezko da, eta Zaldibarko guraso elkarteekin akordioa dogu. Hango eskolagaz hasten dira federatu lez. Aukerak edukita goragoko mailetara jo leikie.

Neska talderik badaukazue?

Saskibaloio eskola daukagu. Bari-kuetan jarduten dabe 10 batek (4-8 urtekoak). Zaldibarko kadeteen taldean dagoz bi. Kirola egin eta ondo pasatzeko aukera eskaini gura dogu, eta federatuta jokatu gura izanez gero preparazino bat badaukie.

Umeekin esku ona ei daukazu...

Asko gustetan jat. Ez neban auke-rarik izan ikasteko, eta orain lanean nago, baina LHko irakasle izan gura izan dot beti. Umeekin jar-dutea itzela da: dibertsino hutsa!

Jolaslekua besortuzenduen.

Udalagaz berba eginda, libre geratu zen ludoteka zaharrean atondu gen-duen; 6-7 urte dira. Ama batzuen bitartez giltzak izten jakez, batez be, neguan joateko.

Hor antolatzen dozuz zine saioak?

Ez, Kultur Etxean, domeka birik behin; partidurik ez dagoe-nean. Palomita, edari eta guzti. Doan da, baina, guraso gehienak Mallabia futbol taldeko kide egiten dira eta laguntzeko era da.

Euskarazko filmak ei dozuz erronka nagusi.

Konpondu bako arazoa da. Bideo-klubetan ez dago ezer, eta liburu-tegian ETBk babestuta ekoiztuta-koak baino ez dagoz. Katalanez bikoiztuta datoz DVDetan zine aretoetako hainbat film, baina, euskeraz bat be ez. Hainbesteko lana da Jaurilaritzarentzat esparru hori jorra-tzea?

Euskaltegirabejoatzenaraasteen egun bitan euskara ikastera.

Hemen bizita eta herri euskaldu-na dela jabetuta, ez dot gura batza-rretan eta bestelakoetan besteak neurera moldatzea; alderantzizkoa da logikoa. Kostako jat -ikaslerik traketsena naz!- baina ulertu eta parte hartu gura dot. Kexarik ez dodan arren, eragindako enbara-zuagatik deseroso sentitzen naz.

Umeek ala euskara eskolek kentzen deusue denpora gehiago?

Aldeagaz, euskara esko-lek. Umeekin jardutea ez jat kostetan; beti egin dot. Pazientzia eta umeak direla jakitea behar da.

Orain buru-belarri diharduzu frontenis txapelketan.

Bai. Igaz hasi ginen harrera oso ona-gaz, eta aurtan be Durangal-deko eta Debabarre-neko 34 batu dira.



Carlos Garcia

Futbito taldeko arduraduna eta 20-21 urtean arbitro federatu izandakoa

47 urte daukaz

BERBARO
Udalekuak 09

Hamaika arrazoi eta mila aukera euskara elkarteetan	UdaRoan	KTG Kanpaldia	Kosta ala Kosta
Udaleku finkoa	Toki: URQUIJA - SANTOJA	Toki: URQUIJA - SANTOJA	Toki: GARCIA - BARRIO
Data: Uztailaren 17tik 28ra	Data: Uztailaren 17tik 28ra	Data: Uztailaren 17tik 28ra	Data: Uztailaren 17tik 28ra
Aktak: 10h - 14h	Aktak: 10h - 14h	Aktak: 10h - 14h	Aktak: 10h - 14h
Prezioa: 20000	Prezioa: 20000	Prezioa: 20000	Prezioa: 20000
Elkarte antolatzailea: Berbaro (Berbaro)	Elkarte antolatzailea: Berbaro (Berbaro)	Elkarte antolatzailea: Berbaro (Berbaro)	Elkarte antolatzailea: Berbaro (Berbaro)
Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)	Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)	Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)	Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)
Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)	Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)	Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)	Ekintza nagusiak: Berbaro (Berbaro)

Izena emateko epea: apirilaren 16tik maiatzaren 15era

Informazio gehiago: www.berbaro.com | info@berbaro.com | Tel. 94 623 25 23 / 94 623 25 24

352 3A 2C

352 3A 2C